

**KANPOKO LIRIKAREN ERAGIN
ZEHATZAK 12 EUSKAL TEXTUTAN**

Luis Mari Mujika

Gure lirika tradizionalak orokorki izan bide dituen eragin batzuk ikusi nahiaz, kanpotiko influxuak textu konkretu batzutan nolakoak izan diren aztatzera goaz. Askotan, kristikagileek esan ohi dituzten generalkeriak (adibidez, gure musikak zelta eragina duela, gure bertsolaritzak Afganistan ala Britainian orain milaka ala ehundaka urte batzuk emanikoarekin harremana eduki zuela) huskeriak gerta daitezke baiztaper horiek ez badira hurbilago *hertsitzen*. Batzutan euskal kritikagileetan “irudipena” ibili da nagusi, *etimologiaren* arlo irristaberan gisa. Komeni da, bada, gure kritika arloa ur apalagoetan eta “hertsiaготan” erabiltzea (1).

Hau esanik goazen harira. Dudaezinezkoa da lirikan ez-ezik, euskal musikan ere kanpotiko influxuak edo eraginak baditugula. Problema zenbaiterainokoak diren jakitea da... Eta hor ere generalkerietan erorigabe, *halako*

(1) Artikulu hau eginda gero (lan askoz luzeago baten zatia delarik) gure eskuetara Josebu Lakarrak eta beste bi adiskideek idatzirikiko “EUSKAL BALADAK” izeneko obra iritsi da. Lan horretan gauza positiboak aparte, akats nagusi bezala halako eskematismo elemental bat nabari dugu. Gauzak ez dira sakontzen. Gainera “BALADA” izena, bai “Mondragoeko erreketak” textu epikoari eta bai 19 mendeko bertso-textu bati aplikatzea, oso diskutagarria deritzaigu. Zehazki, guk hemen ematen ditugun textuen injluentzi-aztarnak aipatu baino ez dira egiten, bainan inolaz ere ezprobatzen, bestetan bezala, apunte hutsetan geldituz. Berriro eskematismoa. Obran zehar textu zehatzen azterketa literario hurbil bat falta da (eta hortik erasotzen zaigu—). Beraz, “gaztetxoan” ausardiaz autoreek gure “Historia de la literatura euskérica” bi lekutan erasotzen dute ohizko jarrera eragabea. Gure azterketa bere textuingurutik atera nahi da, malizioski, G. Lorca, Oihenarte, tradizio orala, atabar nahastuz. Agian, sekretu nahi ote da gaztelaniar kritikoen artean Garcia Lorca-k, Machado-k, etabarrek erromance-ro zaharrean edan zutela? Hori txotxolokeria ote da? Orain arte ez dugu ezagutzen gure erasotzaileen lumatik lan bat bakarrik hemen ari garen arloan. Gainera, garbi dago orain arteko euskal literaturaren “historietan” gurea izan dela ia bakarria atentzioa ematen gure herri lirika zaharraren balio “expresiboaz”.

Bestalde, “etika profesional” elementalenak eskatzen du bibliografia ematerakoan (nahiz, txarra izan) iturri osatuena aipatu behar direla. Zuen lanean hutsune aunitz dago. Besteen artean, gure liburua ez duzute konszienteki aipatu, nahiz —eta

eta *halako* kanta nondik etorria den esan beharko da, eta ez “guztia”. Adibidez, Aita Donostiak kanpotiko eraginak aurkitu zizkien, gutienez, kanta hauei: “Maitia nun zira?”, “Ene izar ederra”, “Zelüko izarren bidia”, “Ezpeleta herrian”, “Ollanda gazte”, “Goizean jelkitzen da”, “Aitarik ez dut”, “Andereño bat ikhusi nuen”, “Lili eder bat”, “Adios ene maitea”, etab (2). Ni ez naiz musikaria, eta are gutxiago musika-kritikoa, eta ez dut argudiorik Aita Donostiak esanak baietsi ala ezesteko. Fr. J. Oroz idazleak, berriz, beste musikazati zenbaiti iturri zehatzak egotzen dizkio. Hona *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian orain dela gutxi zioena: “La relación entre canciones es a veces tan estrecha que resulta evidente para cualquier ojo o cualquier oído: la popularísima canción *Urzo xuria*, errazu e.g. encuentra correspondencia exacta en el cancionero francés, o en el alemán, por no citar otros; la canción navideña, que no es de las más tradicionales, *Oi Bethleem* figura con, texto francés de tema muy diferente en un cancionero de mediados del siglo XVIII, y también se canta con texto gascón navideño; *Titili eta Tutala* tiene la misma melodía que Piper of Galway; *Olentzero buru aundia* tiene un modelo exacto en una *Farandole* occitana que ha sido puesta en relación con tiempos y tierras remotos; la danza de Berriz que comenta Azkue, *Cancionero popular vasco*, p. 264 se sirve de la melodía de *Il pleut, il pleut bergère*, canción anterior año 1794 en que fue guillotinado su autor, Fabre d’Eglantine. Otras veces la relación es menos evidente, o se reduce al tenor general o a pocos compases, como la que se constata entre *Urzo luma* y *Comment passer dedans les bois?* (Azkue, op. ct., Notas al cancionero, E-44, núm. 81), que en efecto, comienzan de manera casi idéntica; quien conozca los corales de Bach asociará esa melodía con *Wer nur den lieben Gott lässt walten*, cuya semejanza no se limita a los primeros compases” (3). Francisco J. Oroz irakasleak, gainera, elkar eraginak aurkitzen ditu *Magali* okzitaniar kanta eta gure *Goazen San Juanera* artean; baita gure

Leizaola-rekin batean ia bakarria izan textu zahar horien komentario “literarioan”. Bainan, behin da berriz zitatzen duzue Jon Kortazar-en “Euskal lirika gortesauari buruzko oharra” artikulu interesgarria (Jakin 16, 76-90 or.), nahiz-eta lan horren iturburu nagusia (Kortazar-ek berak aitortzen duenez) nere “Literaturazko Historia” izan. Honelako jokabide zitalek ez dute beste komentariorik merezi gure aldetik, bainan “etika profesional” gehiago eskatzen dugu gure elkarrekiko jarreretan. Obra honetan textuen azterketa “literario” hurbil bat falta da; positiboetan, berriz, textuen kopapen geografikoa, textuen aldagai edo bertsiio berriak, balada (?) zenbaiten tratamendu tematikoa. Baladen zehar amodioaren tratamenduak bost bat orri besterik ez edukitzea, hala herioak orri-erdikoa, azalergia larria deritzaigu. Baladak ez dira azertu behar iturrien aldetik soilik, “forma literarioen” aldetik ere bai, eta hori da “Literaturaren historia” batean garrantzitsuen, bestela, halako sasi-erudizio hutsean geldi gaitezke. ‘Komentario literarioan’ Haritxelar-ek, Leizaolak, Aitzol-ek, Tx. Peillen-ek (eta bi hauek ez dira zitatzen ere alde horretatik), Jon Kortazar-ek eta guk geuk eginak ez dira gutxiestekoak, zuek egiten duzuten bezala. Textu zahar horiek “literatura expresiboaren” aldetik hobenetakoak dira. “Alde” literario hori zapuztea guretzat obra honen akats nagusia da. Ez da aski textuen iturriak eta bertsioko ematea.

- (2) I. Fagoaga. *La musique représentative busque*. Imprimerie “La Presse”. Bayone, 20 or.
 (3) Fr. J. Oroz. “Reminiscencias de una canción occitana en el cancionero vasco”, FLV 40 (1982) 501-502 or.

Agur, nere arreba eta sefardiar kutsuzko «¿Por qué no cantáis la bella» kanta artean. “La melodía de *Agur, nere arreba* y la de *Una hija tiene el rey* son en líneas generales casi idénticas; la variante de la canción vasca, en su versión actual, en modo mayor es mas dinámica; se sirve de la repetición para recalcar elementos importantes del relato con machacona insistencia, sin que por ello se interrumpa el hilo, gracias a la ausencia de silencios que produce una acentuada sensación de ansiedad.” (4)

Hau dena musikari dagokionez. Guri hemen textuei buruz aritzea dagokigu. Kulturaren edozein arlo, noski, ukibera da elkar eraginetara, eta ukipen geografikoa ez da ahaztekoa, besteen artean, eraginaren zergatia ulertzeko onean.

Tematika dela, ahapaldiera dela, neurria dela, etabar lehendik eginak dituzte ikerketa batzuk J. C. Guerra, J. M. Leizaola, M. Lekuona, Haritschelhar jaunek eta beste batzuek. Hori dena sakondu beharrean dago oraindik. Gu hemen tematikak aurkezten dituen influxu-aztarnak arakutzen saiatuko gara, eta, noski, textu *batzuen* (12 izanen dira guztira, eta *erromantzeak* gehienak) azterketara mugatuta, euskal lirika *guztiuren* eraginaz abstraktuki jardutea lan alferrikakoa bailitzake. Bestalde, tematikaren aldetik, kontutan izan beharrekoa da balio zenbait (*maitasuna, edertasuna, leialtasuna, heriotza* bezala) izatez *unibertsal* dela, eta gai horien tratamendua erraz konstata daitekeela ere alboko ala hurbileko literaturetan, hala nola, Gaztela ala Okzitania-Probentza-koan. Arrazoin horrengatik bakarrik (eta ez beste batengatik) aunitzetan euskal textua behean (ala orrien oinean) beste gaztelaniar ala okzitaniar (probentzal) textu batez lagundua ikusiko da. Kanpotiko textu hori ekartzeak ez du esan nahi (inolaz ere) euskal textua handik hartua dagoenik (12 kasu horiek kendu ezik!), baizik eta tematika hura (ala antzekoa) konstatzen dela adierazitako literaturetan ere. Beraz, antropologiatik begiratuta, bai euskaldunak, eta bai gizon gaztelauak ala okzitaniar-probentzalak, maitasuna biziki sentitu du (eta kantatu), eta amodioaren pasartetan leialtasun-desleialtasun (deszintzotasun) faktorea aunitzetan jasoko du; eta, bestainbeste, *heriotzari, bizitzari, tristurari*, etab. dagokionari, balio horiek ia herri guztietan ematen diren elementuak direlako. Gu, ordea, gaztelaniar eta okzitaniar-probentzal textuetara mugatuko gara herri horiek gure ingurukoak direlako. Bestalde, joglekien lirika ez da inolaz ere ahaztekoa Europa Hegoaldeko area osoan.

Kanpotiko eragin generikoak albora utzita, bada, guk zerrendan azaltzen diren erromantzeak aztertuko ditugu hurbilagotik (kasu batzuk, bestalde, *beste* lan batean gerora sakontzekotan oraindik gelditzen garelarik). Hona, bada, guk ondorengo orrietan elkar influxuaren aldetik aztertuko ditugun textuen izenburuak:

1. Irigaraien alarguntsa
2. Monja gerlaria
3. Neskata ontziratua (eta lokartua)
4. Peru gurea Londres-en

(4) IDEM. “Una canción hermana de *Agur, nere arreba*, en menor”, FLV 40 (1982) 520 or.

5. Goizetik yagi zara (Egunon Jainkoak dizula, Xinkoak dizula egunon)
6. Judu erratua
7. Pazkuetan dan alegerena
8. Frantzie korteko erromantzea
9. Seta haria
10. Oies errondan dabil
11. Mairuei saldutako neskatxa
12. Ura ixuririk

Dударик gabe, gure lirika tradizionalaren gorpuztura nagusian elkar eraginak areago luza daitezke, baina guk oraingoz susmoa hauetaz dugu, eta beste batzutat ere (5); nahiz aztarna umil zenbait eduki, ez gara oraingoz besterik azaltzera ausartzen. Beste testu askotan tematikaren aldetik “kointzidentzi” orokorrak daude maitasunaren, desleialtasunaren, etabarren tratamenduan, baina hari zehatza eta datuala ez da berdin-berdina. Testu liriko huts direnetan (alegia, kontaerarik eta daturik ez dutenetan) kointzidentzia orokor horiek normalak dira (ezen-eta gizon orok *maitasuna*, *jelostasuna*, *tristura*, *etabar sentitzen baitu bere bihotzeko barne gelan*). *Hemen, noski, elkar influxuaz jardutean, datuari eta kontakizunari hurbilagotik heltzen dionaz mintzaten ari gara.*

IRIGARAI-EN ALARGUN TSA (“Goizian goizik”)

Erromantze honen testuak XVII mendean, hots, 1633-ko ekainaren 8-an gertaturikoa isladatzen digu. Irigarai jauna egun horretan Gabriela Lohitegi andereñoarekin ezkontzen. Gizon ezkondua egun berean hiltzen da lore pozoindu batzuen usainaz, eta emazteak bere gelan gordetzen du senarraren gorpua limoi-urez igurtziz. Dena maitasun bortitz baten sinbolo “bitxi” gertatzen da. Hona testuaren bi zati garrantzitsuenak:

Goizian goizik jeiki nündüzün, ezkuntü nintzan goizian,
baita eta ere zetak beztitü ekhia jelkhi zenian
Etxek’andere zabal nündüzün egüerdi erditan,
bai eta ere alhargün tsa gazte ekhia sarthü zenian.

Zazpi urthez etxeki dizüt gizon hila khamberan
egünaz lür hotzian eta gaiaz bi besuen artian;
zitru urez ükhützen nizün astian egün batian,
astian agün batian, eta ostirale goizian (6)

(5) *Beste batzuen artean* Juan de Flores “*Irigarai-en alargun tsa*”-rekiko, eta baita Errege Jan “*Heriotza ezkatuaren*” tradizioan. Beste hainbeste, agian, “*Testamentua*” deituriko testuari dagokionez. *Hauetaz beste batean arituko gara.* Ene mutilik tipiena kantak ere kanpotiko eraginak bide ditu.

(6) J. de Uiezu. *Flor de canciones populares vascas*. Ed Sendoa, 1982, 144-45 or.

Kurioski, antzeko argumenduaz Frantzian, Italian, Alemanian, Katalunian, etab. textuak ezagunak dira. J. C. Guerra ohartu zen egitate horretaz eta bere ikerlanetan Katalunian bilduriko textua ekartzen digu. Guk geroago textu bera topatu dugu Menéndez Pelayo-en antologia handian, “Antigua Lirica Castellana” -n (7). Hona katalanez tartekaturiko textua:

Siete años que lo *tinch* muerto
y *tancat dins* de ma cambra,
Yo *li* mudo la camisa
todas las *festas* del año
yo *li n'rentaba* su rostro
con rosas y vino blanco;
veig q'uels ossos se dessossan
de aquellas carnes tan blancas.
Qué hi faría yo mesquina
trista de mí, desgraciada!

... —“Cazador, buen cazador,
eschúchame una palabra:
¿voldría enterrar un muerto?
Te será muy bien pagado” (8)

Ez dugu eman textu osoa, guri interesgarrien zaigun zatia baino. Euskal eta erdal textuaren artean parekaketak oso hurbilekoak dira:

- a— *siete años* / *zazpi urthez*
- b) *dins de ma cambra* / *khamberan*
- c) *yo lo tinch muerto* / *gizon hila*
- d) *yo li n'rentaba el rostro* / *ükhützen* (garbitzen) *nizün*
- e) *con rosas y vino blanco* / *zitru* (limoi) *urez*

Textuan nahiz-eta zehaztapenak aldatu (gurean *zitrua* —limoia— dena, bestean *rosas* y *vino blanco* da, gurean *ostirale* dena, bestean *fiesta* da), funtsean, ordea, argumendu bat-bera, nahiz-eta azkenaldean Kataluniako textuak beste akabera eduki (gurean azaltzen ez dena).

Menéndez Pidal-ek datorren erromantzean pasarte hauek eskaintzen dizkigu parekagarri gisa:

sala de arriba / *khamberan*
y no le digan mi muerte / *etxeke dizüt gizon hila*
hasta los cuarenta días / *zazpi urtez*

Erromantzeak “La muerte ocultada” du izena, eta muina hildakoaren ezkutapena da, bainan textua, zehaztapenetan, asko urruntzen da batzutan:

(7) M. Menéndez Pelayo. *Obras completas de M. Pelayo, T. VIII, 379 or.*

(8) J. C. Guerra. *Los cantares antiguos del euskera, op. c. 335 or.*

Albricias pedís, mi madre,
tristes albricias serían;
mala caza es la que traigo:
la Muerte en mi compañía!
Hágame, madre, la cama
allá en la sala de arriba;
que nada sienta doña Alda
de este mal que yo traía,
y no le digan mi muerte
hasta los cuarenta días. (9)

Beraz, hildakoa berrogehi urtetan gelan ezkutatua da (euskal textuan, berriz, Kataluniakoan bezala, *zazpi urtetan*). Dudarik gabe gure erroman-tzeak Kataluniakoarekin harreman hurbilagoa dauka.

Oraindik badugu erromantzearen beste aldagaia (variante), Menéndez Pidal-ek Tanger-en bildua. “La guardadora de un muerto” du izenburua. Hau, itxuraz, goikoa baino hurbilagoa zaigu.

En las huertas de mi padre herido me le he hallado,
cúrele las sus heridas con rosas y vino blanco,
atéle las sus heridas con tocas de mi tocado.

Cada vez que le iba a ver parecía vivo y sano;
van días y vienen días, la carne se iba dañando,
¿a quién contaré mi mal, a quién iré yo a contarlo? (10)

Pasarte hurbilak nabariak dira: con *rosas y vino blanco*, euskarazkoan *zitru* (limoi) *urez*. Bietan hildakoaren itxura ona (hots, bizidun batena), ezi-nezkoa gertatu arte.

Bainan, oraindik, beste textu bat aski hurbila, nahiz-eta beste eszenario batean kokatua egon. Bertan *hila gelan ezkututzen (a un hombre muerto)* da (le ha entrado al *camarín*) eta, kurioski, oraingoan limoi gisako urez (hots, toronja - zidra urez) garbitzen du (gurean *zitru-urez* ukuzten zuen) (*bañóle todo su cuerpo / con agua de toronjil*).

No te espantes, Catalina,
ni me quieras descubrir,
que a un hombre he muerto en la calle,
la justicia va detrás de mi.

(9) R. Menéndez Pidal. *Flor nueva de romances viejos*. Col. Austral. 1976, 214 or. Menéndez Pelayo-k *pasarteari* Le roi Renar kantarekin harremanak ikusten dizkio, euren iturria *Bretaina eta Eskandinabiako baladetan dagoelarik*. Honetaz ikus R. Menéndez Pidal. *Romancero histórico I*, 321-322. M. Díaz Roig. *El romancero viejo*. Ed. Cátedra, 1976, 275 or.

(10) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América*. Col. Austral. 1958, 168 or.

Le ha cogido de la mano
y la ha entrado al camarín;
sentóle en la silla de plata
con respaldo de marfil;
bañóle todo su cuerpo
con agua de toronjil;
hízole cama de rosa
cabecera de alhelí (11)

Ikusten denez, nahiz-eta erromantzeak, maiz, muinean aldendu (tradio asko nahasten delako), ala ere, hildakoaren ezkututzea, haren gorputza *zitroiz* (ala *ardoz*) igurzteia ia denetan konstantea da; baina textu horietan gurera hurbilena, dudarik gabe, lehenik emana, hots, Katalunian aurkitzen dena. (12)) Esan dugun bezala *Juan de Flores* eta *Errege Jan* textuak ere “Heriotza ezkutatuaren” giroan sartzen dira.

“Irigai-en alarguntsaren” poemara berretoriz, oraindik badugu beste zenbait ohar interesgarri alboko herrietako literaturetako tradizioetatik. Iparaldeko lurretan, zehazki, Bearn-ko kanta herrikoietan ezaguna da “Quand le roi entra dans la cour” izenekoa. Bertan poemaren trama ez da, noski, euskal textuaren gisakoa, baina interesgarria da gure kantan agertzen den pasarte bat bertan atzematea, alegia, gure “buket bat igorri ditadazüt lili arraroz eginik”, hau da, lore pozoinduz eginiko lore-sortaren irudia. Hona zer dion iparreko textuak:

Le reine lui fit un bouquet de fleurs jolies;
mais la senteur de ce bouquet tua la bell’marquise. (13)

Beraz, textuan hiltzen dena ez da senarra, erregearen dama (markesa) baino. Esan dugunez, lore pozoinduen (usandunen) pasarteia ez da kokatzen “hildakoaren” kanta batean, amodiozkoan baino, baina, euskal textuan, nolabait, kanta horretako (ala antzeko) baten elementuak nahastuta daude.

(11) R. Menéndez Pidal. *Flor nueva de romances viejos*, op. c. 124 or. Menéndez Pidal-ek dio: “Este romance, tan romántico, tan trágico, desconocido de las colecciones viejas y casi también de las modernas castellanas, se canta hoy en Andalucía y Santander lo mismo que entre los judíos de Oriente, y en Chile y en Méjico”. (*Ibidem*, 125 or.).

(12) Lohitegi-ren kantan senarra lore-usain pozoitsuaz aurkitzen da; Italiako iparraldean ezaguna den beste erromantze batean, berriz, (nahiz-eta beste textuinguru batean) emate ezkonzahaslea (adúltera) senarragatik pozoinez hila da. Emateak ardora suge-buru lauskitua (machacado) botatzen dio, baina senarrak —zerbait sospetxatzen duelarik— ardoa lehenik andereak edan dezala agitzen du, eta gero: “A la primera gota que ha bebido, doña Lombarda cambia la color. A la segunda gota que ha bebido doña Lombarda llama al confesor. A la tercera gota que ha bebido, doña Lombarda llama al enterrador”. (M. Menéndez Pelayo. *Obras completas*, t. VII, 393 or.)!

(13) G. Mirai. *Ikus: Cants populaires de Béarne*. Edit. De l’Escole Gastoü Febus. Pau 1969. Textuan azaltzen den damaren izena Gabrielle d’Estrées, Monceaux-ko markesa.

G. Doncieux autoreak dioenez, gutxienez, zazpi bertsio edo aldagai desberdin daude kanta honetaz, eta Euskal Herriaren alboan “La marquise empoisonnée” delakoa. (14)

Goian emaniko kataluniar textura itzulirik, elementu zenbait osatzea komeni da. Ezen-eta “Yo li mudo la camisa / todas las fiestas del año” delakoan euskal textuak “astian egün batian, / astian egün batian, eta ostirale goizian” baitio. Diego Catalán-ek bilduriko textuetan azaltzen dira, kurioski, ostiral egunaren aipamenak han-hemen. Honela “Jo li mudo la camisa tos los divendres (ostiraleak) del año” (*San Joan* bertsioa) (15). Eta beste batean: “Todos los viernes del año la camisa le mudaba” (16). Olot-ko aldagaian, berriz, larunbatz mintzo da: “Li mudava la camisa tost els dissabstes del año”.

Bestalde, esana dugu gure textuan “zitru-ura” dena (hots, limoi-ura) Katalunia-ko textuan *arrosak* eta *ardo-ura* direla. Alabainan, kurioski, Ripoll-en bilduriko aldagaian *limoi-ura* ere badator gure textuan bezala, hots, “con un aigua de llimona li limpiava la cara” (17).

Gero, gure “Juan Flores”-en azaltzen den pasarteak ere baditu antzeko ordainak, alargunak erromes bati maitalea lurperatzen edo ehortzen lagunduko al dion eskatzean. Euskal textuan eskaria anaiari: “Ea lagunduko zidanez / gizona ortzitzen lurrean”. Kataluniako batean erromes bati: “Voldries soterrâ un mort / i en tendries bona paga”. Eta ehiztariri egiten dionean: “Voldries enterrâ un muerto / pagant-lo tot lo que valga”. Bainan, parekake-ta oraindik harbilagoa Olot-ko aldagai batean lurperatzailea gurean bezala anaia denean: “Que si ho dic a mi hermano / home n’és per a callar ho: / Mi herman, ni hermano, / vols escoltar una paraula? / —Jo l’escoltaré, senyora...” (18).

Bai Kataluniako tradizioan, eta bai gurean, gauzak handik eta hemendik nahastuta daude, logikoa denez. Herriaren ahoan tradizio aunitz gurutzatutatu egin ohi da, elementu zenbait handik eta hemendik hartuz. Gure bi textuak ere nahasmendu horien fruitu dira. Gurean, ordea, ez da azaltzen Kataluniako erromantzean agertzen den azkeneko eszena, hots, hilobiratu aurretiko azken agurra eta besarkadarena.

(14) *Besteen artean ikus: G. Doncieux. Le romancero populaire de la France. Paris 1904. 295 or. Bladé. Chansons populaires francaises recueillies dans l'Armagnac et L'Age-nais.*

(15) Diego Catalán. *Por campos del romancero. Estudios sobre la tradición oral moderna. Ed. Gredos 1970, 197 or.*

(16) Diego Catalán. *op. c. 197 or. Urteen aipamena ere, ia gehienetan, zazpikoa, gurean bezala: “Set anys l'en ha tingut mort”, “Set anys l'en he tengut mort”. Bainan Artako aldagaian hiru (“Tres años lo tuve muerto”) (9 *ibidem*).*

(17) Diego Catalán, *op. c. 198 or. Beste batean lore hutsez ere ari zaigu kanta (“Ja li rentaba a cara roses i liris blanxos”) (Ibidem).*

(18) Diego Catalán, *op. c. 201 or. Eta hilobiratzerakoan, berriro, ostiraletan etorriko dela aurpegia ikuztera (garbitzera) (“Si no fos pel dir de la gent/te vendria a visitar-te,/ tots los divendres del año/ te rentaria la cara”) (Op. c. 202 or.).*

Nahasmendu horiek beste ondorioak Aragoi-ko eta Gaztela-ko tradizioan. Beraz, ez ahaz “Conde niño” delakoan ere hildakoaren tematika bera ematen dela mamidura desberdinez.

GERLARA JOANDAKO MONJA

Erromantzeen tradizioan monja egindako emakumea eta neska gerlaria nahasten dira. Euskal Herrira bi tradizioak iritsi dira; historikoki ezagunena hor dugu Katalina Erauso-koaren kondaira miragarria. Portugal-en, berriz, Antonia Rodriguez eta Silvia Morietti izan dira. Gaztelaniaz, berriz, erromantzeak ehun bat aldagai edo bariante dauzka. Gaztelan, Portugal-en, Katalunian ez-ezik, erromantzea Constantinoplan eta Servian ere ezaguna da judu espainiarrek zabaldua. Gurean J. M. Satrustegi etnologariak aztertu du hurbiletik textua (19). Satrustegi-k textu mota bat Urdiain-en (Naf.) jaso zuen, eta bertan monjaren gudatokiak Buenos Aires eta Argel-en azaltzen dira. Hona Satrustegi-k, kurioski, gaztelaniaz ere jasotakoa:

Una día a la más pequeña
le tocó la inclinación
de ir a servir al Rey
vestidita de varón.

No vayas hija, no vayas
que te van a conocer,
que tienes el pelo largo
y carita de varón (20).

Euskal textuak, berriz, hau dio:

Errege serbitu dot
zortzi urti hontan,
Arjelen onduen ta
Buenos Airesetan.

Jauna barkatu neuri
neure pekatua,
monja sartzera dijua
neure estadia (21)

Hona, berriz, Menéndez Pidal-ek Tanger eta Adrianopolis-en bilduriko textuaren azalpede bat:

(19) J. M. Satrustegui. “Romance vasco de la doncella guerrera”, *FLV* 3 (1972), 73-84 or.
Eta baita “Versión vasca de la Doncella Guerrera”, BRSVAP, S. Sebastián (1967), 323 ond.

(20) J. M. Satrustegi. *Ibidem*, 74 or.

(21) J. M. Satrustegi. *Ibidem*, 77 or.

Reventada seas, Alda
 por mitad del corazón;
 siete hijas me pariste,
 y entre ellas ningún varón (22).

Oso hurbileko textua, oraindik biltzaile beraren “Flor nueva de romances viejos” delakoan:

Allí habló la más chiquita,
 en razones la mayor:
 —No maldigais a mi madre,
 que a la guerra me iré yo;
 me daréis las vuestras armas,
 vuestro caballo trotón.
 —Conoceránte en los pechos,
 que asoman bajo el jubón.
 —Yo lo apretaré padre,
 al par de mi corazón (23).

Beraz, Satrustegi-k Urdiain-en Koncha Goikoetxea-ren ahotik bilduriko erromantzean *zazpi* alaben eta *guzteenaren* aipua (*siete* hijos le dio Dios / un día la más *pequeña*). Menéndez Pidal-ek bilduriko textutan bi kontzeptu horiek ere present. Euskal textua, ala ere, ez da hari horren pasarte motz bat baizik, baina, funtsean, erregearen zerbitzura gerlari joandako neskaren kondaira da.

NESKATXA ONTZIRATUA ETA LOKARTUA

Neskatxa *ontziratua* (“Brodutzen ari nintzen”— eta Neskatxa *lokartua* (“Elorri xuriaren azpian”) erromantzeen artean dudaezinezko loturak daude. Bi ‘poemetan neskatxa —birjinitatea gordetzearen— hil egiten da. Batean neskatxak burua ezpataz hiltzen du (“Hor hartzen du ezpata, / bihotzetik sartzen da, / hila doa lurrera...”), eta bestean “Andrea hitz hori entzunik hil hotza zen erori”. Bi poemetan ere neskatxa engainatua eta bortxatua edo behartua ikusten da gizon berezi batzuegatik (“Ez, ez ene bihotza arras gortez jina duzu”) (“Han emaiten diote *lo-belarra papora...* / *Zaluxko itzulazu hartu duzun lekura*”). Harrapatzailea batean kapitain bakarra da, bestean, berriz, *hiru* kapitain. Antzeko parekaketak oraindik ugal Laitezke...

Poema hauen kanpotiko eraginaz gogora dezagun Menéndez Pidal-ek “Soldados forzadores” izenean dakarren erromantze xarmanta. Gure textuen eta gaztelaniar erromantze artean pasarte aunitzetan (eta muinean)

(22) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América*, op. c. 172 or.

(23) R. Menéndez Pidal. *Flor nueva de romances viejos*, op. c. 199 or. “Este romance del que tengo una centena de versiones modernas, no figura en cancioneros, ni pliegos sueltos antiguos, pero sabemos que era muy conocido en el siglo XVI” (*Ibidem*, 202).

parekotasun nabaria. *Menéndez Pidal-ek* romantzearen oinean hau ipintzen du: “Fuerzan la casa donde vive la niña, la roban, y ella guarda su honra hasta ser muerta. Abunda en la tradición peninsular” (24). Tanger-en bilduta dago bertsiio bat.

Dijo el sargento al alférez:
—Vamos a rondar la villa.
Vieron venir tres mocitas
que de la misa salían...
Dijo el sargento al alférez:
—¿Cuál de ellas es la más linda?
—La de blanco, señor,
a mis ojos parecía (25)

Menéndez Pidal-ek bilduma horretan ez du jarraitzen poema, baina neskata bahitua (secuestrada) dela-eta, birjinitatea galdu baino lehenago hiltzea nahiago duela aitortzen du.

Hona euskal textuen pasarte berezienak. Lehenengo “Neskata ontziratua”-tik:

Andre gazte xarmanta igaiten da untzira;
han emanen diote *lo-belarra* papora,
eta untzi handian lo dago gaixo haurra.

—“Jaun kapitaina, nora ekarri nauzu huna?
Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura,
hartu nauzun lekura, ana-amen gortera”.

Andre gazte xarmantak, hor hartzen du ezpata,
bihotzetik sartzen ta, hila doa lurrera...!
Aldiz haren arima hegaldaka zerura!

Bertan hiru ñabardura nagusi: a) neskata opioa edo *lobelarra* emanez engainatua da; b) neskata bortxatua sentitzen da leku hartan; c) ezpataz hiltzen du bere burua birjintasuna gordetzeko.

Orain “Andere Lokartuaren” zati adieragarrienak:

Elorri xuríaren azpian anderea lokartu,
arrosa bezen eder, elurra bezen xuririk,
hirur kapitainek hor deramate gortez enganaturik.

Anderea zen orduian eztiki deklaratu;
—“Ez, ez, ene bihotza arras bortxaz jina duzu,
hirur kapitainek galeriatik ebatsirik jina nuzu”.

(24) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América y otros estudios*, op. c. p. 164.
S. Onaindia. *Milla Euskal-Olerki Eder*. Zarautz, 1954, 53 or. *Textu honen komentaria literarioa gure “Historia de la literatura euskérica” liburuan*. Ed. Haranburu 1979, 226-230 or.

(25) R. Menéndez Pidal. “*Soldados forzadores*”, op. c. *ibidem*.

Anderea hitz hori entzunik hil hotza zen erori;
 kapitainak ere partitu bere tropak harturik,
 ongi nigar egiten zutela andereari dolu emanik (26).

Textuan zehaztapen nagusienak: a) neskatxaren bahiketa gorteketaz; b) neskatxarren aitorra bortxaketa dela-eta; c) neskatxaren *itxurazko* (fikziozko) heriotza.

Orain ikus dezagun Menéndez Pidal-ek “Flor nueva de romances viejos” delako bilduman damaigun beste erromantze bat. Bertan neskatxa ere bortxatua sentitzen da, bainan eginahaletan neskatxak *puñala* (sastakaia) sartzen dio zaldunari, bainan gero *lurperutu* egiten haren gorpua. Euskal textuan ere lurperaketaren eszena xoragarria, hots, neskatxa hilaren ehorzketara hiru kapitainengatik (“Anderea hila da, nun ehortziren dugu? Aitarenean baratzean ezelaren azpian, / liho liliz estalirik eta tonba eder batian”). Gaztelaniar textuan, berriz, ermita baten ondoan eta “con su puñal dorado / la sepultura le hacía; / con las sus manos tan blancas / de tierra el cuerpo cubría”). Hona “De una fatal ocasión” erromantzearen pasarte batzuk:

—Tiempo es de hablarte, la blanca,
 escúchesme aquí, la linda.
Abrazóla por sentarla
 al pie de la verde oliva;
 entre las vueltas que daban
 la niña el *puñal* le quita,
 metiéraselo en el pecho,
 a la espalda le salía...

Puso el muerto en el caballo,
 camina la sierra arriba;
 encontró al santo ermitaño
 a la puerta de la ermita...

Con el puñal dorado
 la *sepultura* le hacía;
 con las sus manos tan blancas
 de tierra el cuerpo cubría,
 con lágrimas de sus ojos
 le echaba el agua bendita (27).

Erromantze honen harria eta euskal textuena ez da guztiz berdina, hots, alderantzizko paralelismoa dauka, hiltzen dena, neskatxa ez baino, zalduna delako, bainan bietan kausa bat bera, hots, neskatxaren birjinitatea salbanahia. Bestalde, parekaketa antzekoa lurperaketan ere (bainan, berriz, alderantzizkoa), ezen-eta bi textuetan hila gertatu dena ehortzia (lurperatua) izan da; euskal textuan neskatxa kapitainengatik; gaztelaniar textuan, berriz, zal-

(26) S. Onaindia. *MEOE*, 50-51 or.

(27) R. Menéndez Pidal. *Flor nueva de romances viejos*, op. c. 61-62 or.

duna neskatxarengatik. Bietan eszena horrek lirismo bortitza azaltzen digu (eta bereziki euskal textuak “ezpelaren azpian, / liho liliz estalirik...” dioenean). Menéndez Pidal-ek, bestalde, gai honetaz textu aunitz dagoela, hanhemen, aitortzen digu, beti birjinitatearen *defentsa* dela motibu. “La mayoría de las versiones contienen el conocido tema de la *vengadora* de su *honra*; las que yo sigo lo complican y le dan más valor trágico, haciendo coexistir en la doncella el pudor *homicida* y la tierna compasión por el caballero amante” (28). Euskal textuan ere, gaiaren antza *alderantzizkoaz* aparte, kapitainen *erruki* gozoa hilarengatik (“Ongi nigar egiten zutela andereari dolu emanik”) (29).

Ikusten dugunez, bertsio aunitz dago. Gure textuak horietako texturen batekin saretuta dabilta. Seguraski, erlazioa goian Menéndez Pidal-ek eskainitako textu laburrekin (nahiz-eta textu hori etzaigu bere osotasunean ematen, baina bai esaten “fuerzan la casa donde vive la niña, la roban, y ella guarda su honra hasta ser muerta” (30). Beraz, bi textuetan muin bat bera, hau da, *birjinitatea*, *bortxaketa*, *heriotza*. Hemen *bortxaketa*, noski, ez dugu ulertzen biolazio *kontsumatua* gisa, baizik neskatxarengan kapitaneke (ala *zaldunek* erdal textuan) egiten duten beharketa gisa; *bortxatu* hitza, izan ere, erromantzeetako *forzar* / *fourssà* hitzetatik dator.

Bukatzeko euskal eta gaztelaniar textuen irakurketatik ateratzen diren paralelismo batzuk aipatu nahi ditugu:

Euskal textuetan

Kapitainak

neskatxa bahitua (“ebatsirik”)

birjinitatea gorde

bortxaketa (“bortzaz jina nuzu”)

heriotza “hil hotza zen erori”)

Gaztelaniar textuetan

soldaduak

“la roban”

“ella guarda su honra”

“fuerzan la casa”

“hasta ser muerta”

(R. M. Pidal)

“De una fatal ocasión” delako erromantzeak, berriz, argumendua alderantzizko (invertido) norabidean darama, baina, azken finean *birjintasuna* delarik tarteko nagusi. Dударik gabe, egonen dira hemen ekarritako textu hurbilagoak ere, baina oraingoz ez dira iritsi gure eskutara.

Oraindik badaude parekatze-mailak erdal erromantzeroan, neskatxaren erraptoa eta bortxaketa dela-eta. Hona lekuko bat: “Con un puñal, el

(28) R. Menéndez Pidal. *Flor nueva de romances viejos*, op. c. 62 or.

(29) *MEOE*, op. c. 51 or.

(30) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América*, op. c. 164 or.

sargento desquicia o da un puntapié a la puerta y entra. Encuentra a la niña durmiendo. El sargento la envuelve en una capa y se la lleva. La madre la amonesta a que guarde su honra. Por el camino el sargento intenta forzarla. La niña lo rechaza. El sargento le corta la lengua. Muere la niña, después de escribir con su propia sangre una carta a la madre. La madre se muere de pena” (31).

Eta berriro neskatxaren aitorrak birjintasuna gordetzearren:

Allá en la playa de Argel / hacen gran capitania. /
Que yo guardaré mi honra, / más que me cuesta la vida.

A la subida de un monte / y al bajar de una espiga /
A los gritos de una niña, / la justicia acudiría.

Allá en la plaza mayor / hacen gran capitania. /
Atóla de pies y manos, / hízola lo que quería (32).

Ikusten denez, tradizio aunitz, han —hemen neskatxaren bortxaketa dela-eta. Ala ere, gure textua hurbiletik hartuta, Aita Donostia-k desestali duenez, Frantzia-ko textu batetik hartua dirudi, ala gutxienez, ondoren emanen dugun textu baten pareko batetik. Hemen, noski, “Andere lokartuaren” erromantzeaz ari gara, hots, “Elorri xuriaren azpian” delakoaz hasten den kantaz. Euskal textua eta Frantziakoaren artean parekaketak hertsia doaz, bai haserari, bai elkarriketari, bai ostatuari, bai ehorzketari eta bai neskatxuak aitarekin duen dialogoari buruz. Horregatik bi textuak alboan ezarriko ditugu: (33).

Euskal textua

Elorri xuriaren azpian anderea lokartu,
arrosa bezen eder, elurra bezen xuririk,
hirur kapitainek hor deramate gortez enganaturik.

Hirur kapitainak jin ziren anderearen xerka;
zamarian ezarri dute mantoaz trozaturik,
Paris-erat eramaten dute ait’amek, jakin gabarik.

(31) *Romancero judeo-español*, op. c. T. II, 125 or.

(32) *Textu hauek Tanger eta Tetuan-goak dira*. *Ibidem*, 26-127 or. Beste textu batean, ordea, neskatxa zaldunaren nahietara amorematen azaltzen da: “(Huye el caballero renegado contra las mujeres: o la amenaza con su espada y ella consiente en acompañarle; o se la echa al hombro y se la lleva a su caballo a Sicilia)” (*Ibidem*, 127 or).

(33) *Ikus*: A. Donostia. “Notas de folklore vasco. Acerca de una leyenda vasca (*Monografía*)”, in *Yakintza XIX* (1956) 57-65 or. *Ikus ere*: G. Doncieux. *Le romancero populaire de la France*. Paris 1904, 269-279 or.

Paris-en ostalertsak batek ederki salutatu,
 ederki salutatu, berriak ere galdetu:
 “Bortxaz ala amodioz jina ziren, anderea, errazu?”.

Anderea zen orduan eztiki deklaratu:

—“Ez, ez, ene bihotza arras bortxaz jina duzu,
 hirur kapitainek galeriatik ebatsirik jina nuzu”.

Kapitainek hitz hori entzunik jin ziren anderearenganat:

—“Anderea, afal zaite eztirik eta trankilik,
 hirur kapitain ba-dituzketzu gaur zure zerbitzari”

Anderea hitz hori entzunik hil hotza zen erori;
 kapitainak ere partitu bere tropak harturik,
 ongi nigar egiten zutela andereari dolu emanik.

—“Anderea hila da, nun ehortziren dugu?

Aitaren baratzean ezelaren azpian,
 liho liliz estalirik eta tonba eder batian”

Handik hirugarren egunean, hilak aitari oihu:

—Aita, entzun nezazu, ni orai hemen nuzu,
 birjinitatea beiratu nahiz hila egona nuzu”

Niverna-ko textua (Frantzia)

Dessous les rosiers blancs / la belle se promene,
 blanche comme la neige, / belle comme le jour.
 Trois jolis capitaines / s'en vont lui faire l'amour.

Le plus jeune de trois / la prend par sa main blanche;
 “monteiz, montez, la belle, / sur mon cheval (2) gris.
 A Paris je vous mène / dans un fort beau logis”

Ne fut pas arrivés, / l'hôtesse lui demande:
 “Dites-moi donc, la belle, / Dites-moi sans mentir,
 et's vous ici par forte / ou bien par vos plaisirs?”.

La belle lui répond / comme une honnête fille:
 “Je suis ici par forte / et non par mes plaisirs;
 au château de mon père / trois capitain m'ont pris”

Quand ce fut au souper, / la belle ni boit ni mange:
 “Buvez, mangez, la belle, / prenez de l'appétit,
 avec trois capitaines / vous passerez la nuit”.

Le mot ne fut point dit, / la belle est tombée morte:
 “Sonnez, sonnez, trompettes, tambours du regiment.
 Puisque ma mie est morte, / l'en au le coeur dolent”.

“Ou l'enterrerons-nous, / cette joli'princesse?
 —Au jardin de son pere, / dessous les fleurs de lys;
 nous prierons Dieu pour elle / qu'elle aille en Paradis”.

Tout au bout de trois jours, / son père se promène:
 “Ouvrez, ouvrez ma tombe, / mon père, si vous m’aimez,
 j’ai fait trois jours la morte / pour mon honneur garder”.

Ezin daiteke duda, hemengo paralelismoak ikusirik, euskal textua alboan emanikotik (ala, honi oso hurbil jarraitzen dion batetik) hartua dagoela. Paralelismoak ia zehaztapen gehienetan. Textuaren laburduragatik, behar bada, seigarren ahapaldian “trompettes, tambours du régiment “dela-koa falta da, bainan euskal textuak “tropak harturik” dio. Seguraski, neurriak galerazi zion bertso-gileari ideia osoa ematea. Niverna-ko textuan ez dator, ala ere, gure bederatzigarren ahapaldian ematen zaigun errematea. Hutsune hori Rolland-ek bere “Recueil de chansons populaires” (34) dela-koan betetzen digu. Hona textua:

—“Hori hola egin ba’duzu, bear bezalakoa zira zu,
 Moltsan sartzen tut eskuak zure ezkonarazteko,
 jaun gazte aberats batekila zure kalitateko”:

Quand le rosiers blancs / eurent fleures
 —Allons, ma fille, allons, il faut vous marier.
 “Pauvre capitaine, / le duc va l’epouser”.

Parekaketak hain hurbilekoak direlarik, ez du merezi gehiago honetaz jardutea. Textu honen aurretik emanikoak, ala ere, ez dira mespretxatze-koak, ezen-eta erromantzeen mugikortasuna herri eta literatura hurbiletakoetan (han-hemengo nahasmenduaz) azaltzen baidute. Alabainan, gure textuaren iturri hurbilekoena, dudarik gabe, azken textua da.

Orain pasa gaitezen “Neskatxa ontziratuaren” erromantzera. Nahiz-eta bietan elemendu nahastekatuak egon (gorago esan dugunez), ala ere, iturri-eriz desberdinak dira (urrunko harremanak ukatu gabe). Gure textuaren pareko hurbilena Kataluniako erromantzeroan aurkitzen den kanta eder bat. Bere izena “A la vora de la mar”. Hare iturri hurbilekoena ez bada ere (agian, gurera Okzitaniaren bitartez iritsi da), jatorri bat-bera bietan.

Goiko textuan bezala, parekotasun hori ez da gutxigorabeherakoa, *hertsia* baino, kidetasuna ia detaile edo zehaztapen nagusienetara hedatzen delarik. Zehaztapen aipagarrienak, beraz, *brodaketa* (“brodava un moca-dor”), itsasoaren aipamena (“gira-ls ulls en ver la mar”), kapitain marinela (“ne veu veni un mariner”), anderea ontzian sartzea (“la donzella entra a la nau”), neskatxak lo hartzea (“amb el cant del mariner / sha adormideta”), etxeruntz itzultzeko erregua (“mariner, bon mariner, / torneu-me en terra”), itsasoan hirurehun legoetan urrun (“cent llegües dins de la mar”), etab. (35)

Ala ere, oraingoan erromantzeak, batean eta bestean, erremate desberdina. Badirudi euskal textua “Neskatxa lokartuaren” tradizioan sartzen dela, nolabait, bortxaketa dela-eta. Beraz, Kataluniako textuan neskatxak

(34) E. Rolland. *Recueil de chansons populaires*. T. III, 58-63 or.

(35) *Textua ikus: Romancero español (Romances tradicionales de Cataluña)*. 1606-1608 or.

Inglaterra-ko erregearen alaba dela aitortzen du (“Que jo so fill del de l’Inglaterra”).

Beste detaille aunitz euskal textuan ez dagoena; adibidez, hiru ahizpa direla aitortzen denean, eta ahizpa horietako bat duke batekin ezkondu dela eta bestea printzesa dela esatean. Ala ere, nik parekaketa hauek nabarmenaraziko nituzke euskal-kataluniar textuen artean:

Euskal textua

Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk;
aire bat entzun nuen *itsasoko* aldetik.

Brodatzea utzirik, gan nintzen amagana:
“hean jaliko nintzen gibelego leiora,
gibelego leiora, *itsasoko* aldera”.

—“Jaun kapitaina, amak igortzen nau zugana”.

Andre gazte xarmanta igaiten da *untzira*.

Ipar haizea dugu, gan behar dut aitzina.

“Nere mariñel ona, hedazak heda bela!”.

Aire (canto) bat entzun nuen itsasoko aldetik,
itsasoko aldetik untzian kantaturik.

Eta untzi handian lo dago gaixo haurra”.

Jaun *kapitaina*, nora ekarri nauzu huna?
Zalu *itzul* nezazu hartu nauzun *lekura*.

“Andre gazte xarmanta, hori ezin egina,
Hiru *ehun lekutan* juanak gira *aitzina*”.

Kataluniako textua

A la *vora* (bazter) de la *mar* n’hi una donzella
que *brodava* un mocador que es per la reina.

Con n’es a mig *brodar*
li manca seda.
Gira-ls ulls en *ver* la *mar*.

Mariner, bon mariner, qu’en porteu seda?

La donzella entra a la *nau*.

Mentres va mercadejant
la nau pren vela.

Mariné-s posa a *cantar*
cançons nouvelles.

Amb el cant del mariner
sha *adormideta*

Mariner, bon
mariner,
torneu-me en terra.

Cent llegües dins de la mar,
lluny de la terra.

Hauek dira parekaketa nabarmenenak. Textua, ala ere, beste elementuez nahastakutzen da gure kasuan. Horregatik, Kataluniako erromantzea ez da gurearen iturri bakarra. Gainera, detailetan gurean hirurehun legoa (lekua) direnak, Kataluniakoan “cent” bakarrik dira. Bestalde, gurean *neskatxak* lobelarragatik (opio) lo hartzen du, Kataluniakoan, berriz, erromantikoki, marinelaren kantuagatik. Ala-eta guztiz, elkarren hildoa daramaten textuen aurrean gaudela uste dugu, eta, berriro, gure lirikaren kanpo-eraginak hemen ere ukaezinak bilakatzen direla pentsatzen dugu.

PERU GUREA LONDRES-EN

Erromantze hau Azkue-k (36) emaniko “Londresen dot neuk senarra” delakoaren aldagaia da. Textua aski ironikoa, eta ezkontz-nahasketen gai zabalean sartzen dena.

Kanta irakurrita gero, guk kanpoko tradizioan aurkitzen diren testu batzuen kutsua nabari diogu. Gaztelaniar erromantzeroan, zekazki, etxetik den senarraren emazteak eginiko engainamenduen aipamen aunitz aurkitzen da. Euskal textuan Londres izena aski exotikoa azaltzen da, nahiz-eta gero Gasteiz eta Izurdia-ko pasartekin sarea egin. Hona “Peru gurea Londresen” erromantzearen lehenengo eta boskarren ahapaldia:

Peru gurea Londresen
zingulun-larrak ekarten
hura (y) andikan etorriarte
guztiok dantza gitezen.
Ai ori egia!
zingulun zangulun Maria!

Neure mutiltxo txikia,
ik esan uen egia
medikuarekin dantzatzen zala
nere emazte Maria.
Aita ori egia!
Iretzat mando zuria (37).

(36) *Cancionero popular vasco*, II, 995-996 or.

(37) *Ibidem*, III, 32-33 or. Beste bertzio batek boskarren ahapaldian dio: “Nere mutiltxo txoria,/Ik erran datak egia:/ dantzan arrapatuko dudala/nere andre Maria:/ira-jira-bira!/iretatzat mando aundia” (*Ibidem*).

Hemen azrtetzen dugun textua, berriz, honelakoa da:

Londresen dot neuk senarra
zirin-bedarrak ekarten.
Bera andik dan artean
gu emen dantza gaitezen.
Oi au egia!
daigun jira bi Maria.

Neure mutiltxo txoria,
ik esan eustan egia:
gaur gabeen dantzauko zala
nire emazte Maria.
Oi au egia!
iretzat mando zuria (38).

Kanpoko erromantze aunitzetan azaltzen da senarra kanpoan (*gerlan* bereziki) denean emazteak okasioa bere maitakerietarako profitatzen duela; bereziki, “Romances de la adúltera” zikloan hori aski nabaria da.

Hona, adibidez, “La adúltera” erromantzeak zer dioen:

El hombre estaba en el campo
le dice el corazón:
hallarás a tu mujer
recogiendo sus hacienda;
vete a casa y no duermas,
haciéndote mil ofensas... (39),

R. Menéndez Pidal-ek “Los romances de América” delako bilduman zazpi erromantze-zati dakarzki: “Romances de la adúltera” sailekoak. Hona beste bat:

Está Raquel lastimosa,
siendo mujer de quien era,
Un día salió a paseo
encontró con un mancebo
le mandó muchos billetis
le mandó un anillo, fino,

lástima que Dios le dio,
mujer de un gobernado!
con sus damas de valor,
de su delito en amor,
y alhajas de gran valor,
sólo, una ciudad valió... (40).

(38) R. M. Azkue. *op. c. II*, 996 or.

(39) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América*, *op. c.* 160 or.

(40) R. Menéndez Pidal. *Ibidem*, 159 or.

Erromantze hauek Tanger, Salonika, Adrianopolis etabarretan bilduak daude, baina penintsulan ere badute tradizioa. Gaia, ikusten denez, gure “Peru gurea Londresen” textuan gisa, etxean gelditzen den emaztearen maitakeria da. Nahiz-eta textuen hurbilketa hertsiegiak (eszenarioen aldetik) ezin egin, hala ere, gurean ere “Romances de la adúltera” zikloan nabarmen den muina da nagusi.

Gaia, bestalde, gero ikusiko dugun *Senar disfrazatuaren* erromantzearekin ere nahasten da, ezen-eta etxean gelditu den emazteak fraidearen maitakeriak onartzen ditu (bainan fraile hori ez da disfrazatuta etorri den senarra berbera baino); senarrak anderearen jokabidea ikustean hil egiten du bere emaztea. Emaztearen maitakeria eta hilketa, ordea, ez dira azaltzen euskal textuetan, bai ordea, gaztelaniarretan.

Hona gaztelaniar textua:

Y lo toma de la mano,
lo lava de pies y manos
y lo vuelve a tomar,

lo lleva para el jardín
con agua de toronjil;
lo lleva para dormir...

—No temas a mis criados,
no temas a la justicia,
y menos a mi marido,

que ya los eché a dormir,
que no porta por aquí;
que está muy lejos de aquí (41).

Beraz, “que está muy lejos de aquí” hori gure textuan Londres-en dagoen senarrarakin pareka daiteke. Dударik ez dago, euskal textuak muinari dagokionez (eta hari datualari ere) kanpoko erromantzeetan dauden sareak jarraitzen dituela, Euskal Herriko egoera batera egokituz. Gizona Londres-en den bitartean emazteak dantza dagi (“gu emen dantza gaitzen”). Gaztelaniakoan gehiago (“lo lleva para dormir”) (42).

(41) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América*, op. c. 23 or. Textu honetan “con agua de toronjil” pasarteak beste toki batetik etorri dela bide du, eta “La guardadora de un muerto” delakoan ikusia nahasten du, hots, gure “Irigarai-en alarguntsa” erromantzeko “zitru (limoi)-urez ukuzten” delakoa gogarazten duela. Bestalde, etimologiari dagokionez “adúltera” edo ezkon-nahaslearem zikloan amatar (apagar) hitza gure Bizkaiko “amatau” hitzaren iturri gisa (“Tomo candil de oro en mano/ la puerta fuera abrir./ a la entrada de la puerta/ se me amató el candil” (*Ibidem*, 160 or.)

(42) R. Menéndez Pidal. *Ibidem*, 23 or.

Mamidura beraz beste hau ere:

—Ah, qué niña tan bonita,
 Ah, quién durmiera con ella
 —Dormirá, usted, buen mancebo,
 que mi marido anda fuera
 Dios quiera que por donde anda
 entonces, sin sobresalto,
 que le quita el lustre al sol!
 una noche y otras dos!
 sin cuidado ni pensión;
 por esos campos de Dios.
 lo maten sin compasión;
 nos gozaremos los dos (43).

“Mi marido anda fuera por esos campos de Dios” da hemen ere maitakeriak kontsumatzeko aitzakia nagusia.

Gaztelaniar textua eta euskal bi textuak ere ikusita parekaketa eskemati-ko hauek eginen genituzke:

Euskal textuetan

emazte ezkon-nahaslea (adúltera)
 senarra Londresen
 morroinak bizketan
 emaztea dantzan

Gaztelaniar textuetan

emazte seduzitzailea
 “mi marido anda fuera”
 zalduna hizketan
 “nos gozaremos los dos”.

Hala ere, euskal eta gaztelaniar textuen artean lerro elementalak soilik hartu behar dira, alegia, emaztearen jokabidea senarra *hurrun* delarik. *Bernal Francés* izeneko erromantze-zikloa ere kontutan hartzekoa da.

SENARRAREN ITZULERA DISFRAZATUA

Senarraren itzuleraz (retorno) hiru textu berezi daukagu gure tradizio lirikoan. Bat “Goizeti yagi zara” (Azkue, II, 978), bestea “Egunon Jainkoak dizula” (Azkue II, 965), eta azkena “Xinkoak dizula egunon” (Azkue II, 992). Denok bata bestearen bertsio desberdinak dira. Beraz, hiruen artean

(43) R. Menéndez Pidal. *Ibidem*, 26 or.

lotura garbia tematikaren aldetik. Bigarren eta hirugarren textu artean hurbildura aski nabaria. Bi azken hauetan elkarrizketa anderea eta galaia artean ematen da. Lehenengoaren kasuan, ordea, bi bertsio edo aldagai berezi dauzkagu; batean jaun soila da elkarrizkalaria, bestean, berriz, fraidea.

Funtsean, hirurek gaztelaniar eremuan “Las señas del marido” deituriko zikloan ematen diren erromantzeekin zerikusi tematikoa daukate, nahiz eta haria memento aunitzetan aldendu. Beraz, galaiaz, zaldunaz ala fraidez jantzitakoa ez da emaztearen *leialtasuna* probatu nahi duen *senarra* bera baino. Azkue-k berak ongi dio halako ohartxo batean: “Dice la leyenda que un día un hombre que estuvo ausente de su domicilio mucho tiempo se presentó disfrazado de fraile a su mujer con objeto de probar su fidelidad, y entablaron este dialogo.” (43). Azkue-k ongi laburtzen du euskal textuen muina. Dударik gabe, bada, gaztelaniar erromantzeetan ere serrar disfrazatuaz esanikoak gogarazten dizkigute gure pasarteek, bainan gure erromantzean, euskaraz ohizkoa ez den, sentsualitatea inozoa ere azaltzen da. Hona textu bat:

- Leisibatxu zuria dozu, andra gaztea.
- Ondotxu egosita, aita praillea.
- Ezagutuko etezenduke senar zeurea?
- Lengo erropakin baletor bai, aita praillea.
- Laztan bat emongo neuskizu, andra gaztea.
- Ibaia dago bitarte, aita praillea.
- Berton itoko alzara, andra gaztea.
- Berori txalupa dala, aita praillea.
- Suak erreko alzaitu, andra gaztea.
- Berori egurra dala, aita praillea.
- Agur, agur, agur, andra gaztea.
- Beyoa ondo ondo, aita praillea (44).

“Goizeti yagi zara” aldagaian, berriz, goiko elkarrizketa gisako ironia eta ausardia gordina (“laztan bat emongo neuskizu”, goiko pasartean). Bertan bidaia urrutikora (“biaje urrunean da”) joanaren oihartzuna, eta goikoan, noski, disfrazarean aipamen zeharkakoa (“lengo erropakin baletor”). Hona textuaren zati batzuk:

- Goizeti yagi zara, o andra gaztea.
- Leixibatxua egitearren, Jauna neurea.
- Senarrik edo bozu, o andra gaztea?
- Biaje urrunean da, Jauna neurea.

(43) R. M. Azkue. *Cancionero popular vasco*, op. c. II, 980 or.

(44) R. M. Azkue. *Cancionero popular vasco*, *Ibidem*. *Erromantze honek ironia larrizko pasarte bitxiak dauzka*, “Suak erreko alzaitu.../berori egurra dala...”, “Berton itoko alzara...”, “Berori txalupa dala...”, *desira-erantzunaren binomioan*.

- Berton itoko alzara, o andra gaztea.
- Berori txalupa dala, Jauna neurea (45).

“Egun on Jainkoak dizula” bertsioa, berriz, Bizkaiko Arrazola herrixkan jasoa dauka Azkue-k. Bertan aldaketa urriak, eszenarioa ia berdina (oraingoan *Indiak* aipatzen dira). Ironia zorrotzak jarraitzen du jario freskoan. Anderearen soin-edertasunari orain aipu zuzenagoak (“Zanko ederra dozu, / andratxo gaztea. / —Nik alan gobernatu, / galaitxo maitea.” “—Kopeta ederra dozu, / andratxo gaztea. / —Nik alan orraztuta, / galaitxo maitea.”) (46).

“Xinkoak dizula egun on” bertsioa Saraitzuko Otsagi-n bildua izan zen, eta textuaren amaiera gaztelaniar textuei biziki hurbiltzen da, ezen-eta aurren mintzatzen ari zaion zaldunak (bestean fraideak) bere senarra *bera* dela aitortzen dio (“Iduria dukezu hura bera, dela. / Hura ta bera duzu kau, o Margarita” (47) Textuan, bigarren kasuan bezala, haurren edo semeen aipua, eta estudiotan (eskolan) daudela aitorra. Oraingoan, ordea, gizon disfrazatua (mozorrotua) zalduna da, zortzi urtez etxetik falta dena. Gaztelaniar bertsio batzutan bezala, gainera, “erregeren serbitzuan” dago.

- Orai non duzu senarra, andere aurena?
- Erregeren serbitzuan, galaia zalduna.
- Zonbat denbora fan zela, andre aurena (urena)?
- Orai zortzi urte, galaia zalduna.
- So egizu ean au denez, andre aurena.
- (Iduria dukezu hura bera dela.
- Hura bera duzu kau, o Margarita
- (48)

Euskal textuak hauek direlarik, eta urrunera joan den senarraren, eta gero *fraide* / *galai* / *zaldunez* disfrazaturik etorri denaren pasarteak ikusirik, orain azter ditzagun gaztelaniar textuak. Baliteke Okzitaniar, Kataluniar eta bestetan antzeko tradizioak egotea. Adibidez, Frantziar *Germaine* eta *Le retour du mari* izenekoak. Ni gaztelaniar erromantzetara atxikiko naiz. R. Menéndez Pidal-ek erromantze adierazgarri hau. Zaldunak nahiz ezkontzea proposatu, andreak ukoa ematen dio bere senarrari sei urte itxaron diolako (eta hartan jarraitu nahi du):

- Ay, caballero de mi alma, por ahí no me engaña usted!
- Si seis años le he aguardado, otros seis le aguardaré;
- y si acaso no viniere, de monja me entraré...

(45) R. M. Azkue. *Cancionero popular vasco*, II, 979 or. *Laugarren ahapaldiak semeak badituela ere (beste gizon betengandik) adierazten du, bada ezpada ere: “Umerik edo bozu, o andra gaztea?/Jaungoikoak emonda bi, jauna neurea” (Ibidem).*

(46) R. M. Azkue. *Cancionero popular vasco*, II, 966 or.

(47) R. M. Azkue. *Ibidem*, II, 993 or.

(48) R. M. Azkue. *Ibidem*.

Aquí se acaban los versos de una famosa mujer,
hablando con su marido sin poderlo conocer (49).

Hemen emaztearen leialtasuna nabarmen (euskal textuetan bezala), eta bestalde anderearen *ezjakintasuna* (“Sin poderlo conocer / so egizu ea au denez”).

Bilduma bereko 22-garren orrian ezjakintasun horren aipua (“A usted que va para Francia un encargo le haré: / que si viese a mi marido, mil encomiendas le dé”, “Aquí se acaba la historia de esta honrada mujer / que hablando con su marido, no lo puede conocer” (50). Bainan, beste toki batean ikusi genuen “La adúltera” erromantzean, leialtasuna ordeztu, desleialtasuna azaltzen dela emaztearen partetik, beste zaldun baten jantziak etxera azaldu den senarraren kasuan. Emazteak ez du ezagutu bere egitazko senarra, eta beste zalduna bailitzan maitearena egin nahi du (“lo vuelva a tomar, lo lleva para dormir”) berarekin. Bainan senarrak ironiaz dio:

—No le temo a tus criados: ellos me temen a mi;
no le temo a la justicia, porque nunca la temí;
menos temo a tu marido, que a tu lado lo tenís.

Eta emazteak bere engainuaz konturatzean:

—Infeliz, infeliz yo, y la hora en que nació
hablando con mi marido, ni en el habla lo conocí.

Eta senarraren zigorra lirismo tragikoz:

—Mañana por la mañana te cortaré de vestir:
tu cuerpo será la grana, y mi espada el carmesí.
Llamarás a padre y madre, que te vengan a sentir;
llamarás a tus hermanos, que me vayan a seguir;
yo me voy a entrar de fraile al convento de San Agustín (51).

Kurioski, hemen senarra fraide sartzera doa; bestetan, ordea, emazte leialak, zaldunarekin ezkondu baino lehenago, komentura monja joan nahi du (“si a los catorce no viene / monjita me meteré” (52), “que al convento que entrare / con ellas me entraré” (53).

“El soldadito” izeneko erromantzea lehenago bidetatik dabil (54).

(49) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América*, “Las señas del marido”, op. c. 18 or. *Eta lehenago ez-ezagupenaren seinale gisa: “Ay, caballero de mi alma!, un encarguito le haré: / si lo viese a mi marido, dos mil abrazos le de”*. (Ibidem).

(50) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América*, op. c. or.

(51) R. Menéndez Pidal. *Ibidem*, 23 or.

(52) M. Díaz Roig. *El romancero viejo*, op. c. 288 or.

(53) R. Menéndez Pidal. op. c. “Las señas del marido”, 18 or.

(54) M. Díaz Roig. op. c. 288 or. “El soldadito es la versión infantil de Las señas del esposo, romance documentado desde antiguo; lo he tomado de mi propio bagaje tradicio-

- ¿Ha visto usted a mi marido en la guerra alguna vez?
 —No señora, no lo he visto, ni sé las señas de él.
 —Siete años he esperado, otros siete esperaré,
 si a los catorce no viene, monjita me meteré.
 —Calla, calla, Isabelita; calla, calla, Isabel,
 yo soy tu querido esposo, tú mi querida mujer.

Haria hurbil-hurbiletik eramanda, M. Diaz Roig-en bilduman beste bertsio hau:

—Por esa señas, señora, tu marido muerto es.
 En Valencia le mataron, en casa de un ginovés,
 sobre el juego de las tablas lo matara un milanés.
 Muchas damas lo lloraban, caballeros con arnés,
 sobre todo lo lloraba la hija del ginovés;
 todos dicen a una voz que enamorada es;
 si habéis de tomar amores, por otro a mi no me dejéis...

—No os metáis monja, señora, pues que hacerlo no podéis,
 que vuestro marido amado delante de vos lo tenéis (55).

Hemen ere bi ideia nagusi (euskal textuan bigarrena azaltzen delarik), alegia, gizon hilaren leialtasunaz monja sartu nahi duela (eta ez ezkondu), eta, bestea, mintzatzen ari den zalduna gizon *itzulia* dela (“delante de vos lo tenéis”, eta euskarazkoan, hots, Otsagi-n bildutakoan, “hura eta bera duzu, Margarita”).

Bukatzeko, oraindik, beste erromantze baten pasarte hurbilekoak:

—Por las señas que me dábais, —en la guerra muerto queda
 su cuerpo revuelto en sangre, su boca llena de arena.

—Ay, triste de mí, cuitada! —Ay, de mi suerte tan negra.

—Non se aflija la señora; —no se acordoje, mi dueña,
 nin vista los negros paños, —que yo su marido era (56).

Textu guztiok ikusita, eta laburduraren desiraz, guk paralelismo hauek inginen genituzke euskal eta gaztelaniar textuen artean:

nal. Se observarán en él ciertas peculiaridades propias de estos romances, como su perfecta división en estrofas y deformaciones, debidas a su paso por la tradición infantil” (Ibidem).

(55) M. Díaz Roig. *El romancero viejo*, op. c. 270.

(56) M. Menéndez Pelayo. *Obras completas*, “La ausencia”, t. IX, 212. *Menéndez Pelayo-k oraindik beste textu bat bilduta: “¿ Por quién trae luto, señora; por quién trae luto, doncella? / Traígolo por mi marido, que se murió en la guerra. / Non llore por él, señora; non tenga pena, / nin vista paños de luto, que yo su marido era” (Ibidem, 213).*

Euskal textuetan
 Gizona urrunera joan
 zalduna (fraidea) hizketan
 senarra zaldunez (fraidez)
 disfrazatuta
 emaztearen leialtasuna
 senarraren aitorra
 (“hura ta bera duzu hau”)

Gaztelaniar textuetan

Gizona gerlara joana
 “caballero de lejanas tierras”
 “qué caballerito es éste”
 “ni en el habla le conocí”
 “señor, monja me veréis”
 “que yo su marido era”

Andere ez-leialaren eszena ez da azaltzen euskal textuetan, gaztelaniazko batzutan bai, ordea.

Gure textuak, amaitzeko bada, “Las señas del marido” delakoaren tradizio hurbileko textutik (ala textu nahastu aunitzetatik).

Menéndez Pidal-en artxibategi-ko textuetan, osagarri bezala, oraindik pasarte interesgarri zenbait. Textu horietan aipagarriena senar-emazteen elkarrekiko ezagutza. Gure “Hura ta bera duzu hau” delakoak aitor hauek erdal erromantzeetako erremateetan:

Preguntes, señor soldado, / si de las guerras venís. /
 y de allí se conocieron / el marido y su mujer (57).

Escuchad, señor soldado, / si de las guerras venís. /
 y así se conocieron / el marido y la mujer (58).

Escuchad, señor soldado, / si de las guerras venís. /
 chocóse mano con mano / y subióla a su berjel (59).

JUDU ERRATUA

Judu erratuaren erromantzeak ere hedapen handia eduki du Europa-n zehar hizkuntza eta literatura desberdinetan. Euskararen eremura ere pasatu da, eta oraingoz hurbilenik erromantze hau J. M. Satrustegi-k aztertuta dauka. Hortaz, textu hau ere kanpotik etorria zaigu (60).

(57) *Romancero judeo-español en el archivo de Menéndez Pidal. Cátedra de seminario M. Pidal. Madrid 1968, T. I, 320.*

(58) *Romancero judeo español...*, op. c. *ibidem*.

(59) *Romancero judeo-español...*, op. c. *ibidem*.

(60) J. M. Satrustegui. “El cantar de ‘El judío errante’”, *FLV* 7 (1975) 339-361 or.

Jadanik, Goethe, alemainar poeta ospatsua, jarduna zen *Judu erraturaren* gertakizunetaz. Besteen artean, *Judu erratuaz* Eugène Sue eta G. Apollinaire mintzatuak ziren. Baita, gure artean, Dassance (61), eta orokorki denetan Pl. Jacob (62). *Judu erratua* ezaguna zen Baltiko aldean, Holandan, Genovan, Hamburgo-n, etab. *Judu errutua* bi mila urte hauetan pobre arlote gisa han-hemen aberrigabe dabil, Kristo-ren heriotza ezkerotik. Itxuraz, tradizioa IV mende aldekoa da. Hurbilago, berriz, Frantzian 1604 aldean azaltzen da.

Hona euskal textuaren pasarte batzuk. Guk J. M. Satrustegi-k bildua dakarkigu. Jakin beharrekoa da erromantzeak bertsiio aunitz duela gure alorrean ere, ala nola, *Azkué-k* Cancionero popular vasco-n “Badeia Deus”, 386 zenb., “Ote da mundu huntan”, 428 zenb., “Oteda mundu ontan” (Mezkiriz-en (Naf.) bildua), eta baita Hasparren-en (Laburdi) eta Mugerre-n jasotakoak. Bestalde, A. Donostia-ren eta Chambrá jaunarenak.

Ote da mundu huntan deusere gai denik
judu herratiari konpara daitenik?
Nik ez dut uste baden nehon miserablerik
haren zortiarri hurbil daitekenik.

Aitortzen derautziet malur bat dudala
etzitezteela duda egia bera da:
euri edo denbora hun beti kurri nabila
nehon eznaite geldí, juan behar aitzina (63).

Beraz, judu hori beti han-hemenka, geldí ezinik, dabil (Kristo-ren zigor gisa); ez da inon finkatzen; gainera bizar handikoa da (“harek bezain bizarra luzia zuenik”).

Hogeitalau ahapaldietan hedatzen da erromantzea zehaztaperen interesgarriez. Hona beste bi ahapaldi Kristo-rekin elkarriketa isladatzen dutelarik (haren zigorra 22-gn. ahapaldian dager (“mila urtez bereden ibilikoiz mundian”)):

Jesus jiten zelarik Jerusalémenetik
kurutze saindu hartaz ongi kargaturik,
galdegin izan zerautan umiliaturik,
heya plazer nuyenez, bortan pausaturik.

Nik buruya nahasia eta erreble,
ezetz erran nakon, seurki, berehala:
“habil hortik aitzina, habil kriminela”;
haren han pausatziáz affrontu nuyela (64).

(61) L. Dassance. “Gai beraz bertze xehetasun zonbeit”, *Gure Herria*, août, 1966, 125-130 or.

(62) Pl. Jacob. “Notice sur le complainte a la légende du Juif Errant”, *ibidem* 130-134.

(63) J. M. Satrustegui, art. c. 344 or. *Ikus ere* J. M. Leizaola. *Romances vascos y literatura prehistórica*, op. c. 46-49 or.

(64) J. M. Satrustegui, art. c. 20 eta 21 ahapaldia. *Ikus ere* gaiaren aldetik liburu hau: *Chants et chansons populaires de la France (II, 211 or.)*. Ed. Garnier Frères. Paris, 1855.

Nahiz-eta, azkenean, Jesus-ek epai-egunerako barkamena azaldu, txetuek, dudarik gabe, Europa bizi izan den antisemitismozko aztarna ukaezina dauzka.

Bestetan bezala, hemen beste hizkuntzetan aurkitzen diren testigantzetan ez dago inolako zalantzarik, erromantze hau gureru Europako tradizio zabal batetik etorri delako.

“PAZKUETAN DEN ALEGERENA”

Textua Azkue-ren kantutegian II, 1027 orrian. Kantak amodiozko gaia dauka. Galai maite duen (bainan beste batekin ezkontzen den) neskatxagatik eztei-bazkarira deitua da. Bazkarian galaiari aspaldiko amodioak zirrara egiten dio, eta gogarketa batzuk, ontzen ditu. Textua (65) errepikaren teknika paralelistikoaz egitaratua dago, eta haria bihurkinetan harilkatzen du. Gertakizuna Bazkoetan finkatzen da; neska ezteiliarrak (bere lehendiko maitaminduak) hau eta hura bazkarira komitatzen du; ehun bat ezteiliar. Neskatxa mahiburuan, mutil atzerakoia azkeneko muturrean (“nire lastana maigoienian / ni barrenian egotian”), eta, kuriosena, neskatxak keinu mutilari, eta mutilak hari elkarren tristuraz (“alkar genduben penatzen”); bien harreman bitxiar bazkaldegiko ikasle-estudiante bat ohartzen da. Gero erromantzea etenda bezala amaitzen da...

Hona pasarte batzuk:

Pazkuetan dan alegerena
Pazkua Mayatzekua.

Neroni ere konbiaturik nago.
Eztai ortara juaten.

Egun bat lagun ikus nituben
atal ondoan sartutzen.

Goguak baretz, baretz da
biotzak ez du laguntzen.

(65) Ikus J. M. Satrustegui. “Romance del amante relegado en la literatura popular vasca”, *FLV I* (1966), 353-361 or.

Beraz, idazkera paralelistikoa sintagmak halako progresioz harilkatzen doazelarik eta juntagailuaren bitartez. Bihurkiaren teknika hau aski primitiboa da (eta galiziar lirikan bereziki ohizkoa). Hona errepika horietako batzuk: “Jaiki nintzaren goizian eta/ pasiatzeko kalian./Pasiatzeko kalian etalegunian edo gaubian./Egunian da gaubian eta/izarra argi (dagonean) donian. Izarra argi donian eta lastantxuaren aurrian”. (*Ibidem*, 354 or.)

Bere neurri normala 10/8/10/8 -koa, puntua paretan eginez. “Ark niri/nik ari...” inbertsioa aski adierazkorra gertatzen da.

Alkar genduben penatzen eta
arimea re lainatzen (66).

Estudiante varbailasku bat
asi zitzaigun igartzen.

Gaztelaniar erromantzeroan gure “Bazkarira gomituaren” aurreko textuak badira, nahiz-eta beste textuinguru batean eman. “El convite” (67) izeneko erromantzeak balioko luke. Antzeko textuak Espainian eta Portugal-en zehar. Nik “El convite” eta gure textu artean hurbiltasun hauek nabarmendu nahi nituzke:

a) “El convite” delakoan (gurean gisa) eztei-bazkari bat eskaintzen da (“Vengo brindado, Mariana, —para una boda el domingo”).

b) Neskata ezkontzekoak Alonso-ri (gomituari) ezkontza *berarekin* egina izan behar duela dio (“Esa boda, Don Alonso, —deberia de ser *conmigo*”). Eta gero: “Siéntate aquí, Don Alonso, —en este escaño florido; / que me lo dejó mi padre para el que se case conmigo”. Ezkontzen dena, ordea, ez da Don Alonso, bere anaia baino.

Beraz, haseran parekaketa batzuk euskal eta gaztelaniar textuarte, hots, ezteietara *gomitea* eta *ezkontza* berarekin (“Connmigo”) izen behar lukeela dioenean. Bainan, gero gaztelaniar erromantzeak beste bide zeharo desberdina hartzen du, Mariana-k Alonso apo, suge eta sugandilen zukuaz eginiko ardoz pozointzen baitu. Horrelakorik, noski, ez dago euskal textuan. Ala ere, lehenaldiko eszenario guztia bai.

Hipotesi gisa, uste dugu gure “Pazkuetan den alegerena”-k badituela kanpo-eragin batzuk, eta, agian, zuzenkiago guk gaur ezaguna ez dugun beste albo-hizkuntza bateko tradizioetik. Erromantze zaharretan, maiz gertatzen denez, elemenduen eta barne-muinaren nahasketak eta gainezarketak (superposiciones) daude (eta kasu honetan gure “Irigarai-en alarguntsa-ren” pozoin oihartzuna, gaztelanian eta katalaneran gertatzen denez).

Ondorio gisa, bada, gure erromantzeak kanpo influxu ez-soindu baten aztarna du, eta, azaldu dugunez, gutxienez bi textuetan (hots, euskal eta gaztelaniar textuetan) lotura “formala” eztei-gomitean eta ez-ezkonduaren protagonismoan (68).

(66) J. M. Satrustegik nahiago du lainatzen delakoa laino (nube)-tik ekartzea, hitzari zentzu sinbolikoa atxikiz. Beraz, Azkue-ren etimologia kasu honetan, behinbat, lainu lat. damnun (errom. daño)-tik ez dirudi egokia, ezen-eta lat. damnun delakoak gurean damu (arrepentimiento) eman baitu zuzenki, eta ez inolaz lainu/lainho/laño.

Azkue-ren laiñotu (Dice. I. 510 “ponerse de mal humor”, AN-b, G-don), nik uste, exozentrikoki hartu behar da soilik, eta hemen zehazki ere bai.

(67) M. Menéndez Pelayo. *Obras completas*, op. c. 33 zenb. 224-225 or. “El argumento de este romance es análogo al que publicó Milá (Romancerillo, núm. 256) con el título de La innoble venganza, taracado de castellano y catalán. El protagonista se llama Don Guespo y la vengativa mujer Gudriana” (Ibidem).

(68) Gaztelaniar erromantzearen beste bertsio bat R. Menéndez Pidal-ek “Romance del veneno de Moriana” izenez. *Flor nueva de romances viejos*, op. c. 126-128.

“FRANTZIE KORTEKO” ERROMANTZEA

Erromantze bitxi eta xarmanta honetan amagiarrebak semea Frantziatik datorción andragaia hiltzera bultzatzen du. Erromantzearen eszenarioa aski gortesaua da, handikizko elemenduz bildua dagoelarik (zaldiak, perlak, urrezko kalizak, suerpelizak) (69). Azterketa literarioa gerorako, hots, atal berezirako utziz, goazen textu zenbait ikustera:

—Zer novedade barri
entzun dozu, Ama?

—Ezkonetan zarela,
bai, seme laztana.

Ez dot gure prantsesik
ain gutxi errainik.

—Esan dodan berbiaz
urten biar dot nik.

—Esan dozun berbiaz
urten biar bozu,
urten bidera eta
il ein biar dozu.

—Ain de polite, ba ze
nire emastea...
ez da posible, ama
nik ori eitea.

—Juanita, jatzi zaitte
zaldien gañetik,
sar daitzudan puñalau
biotzen erditik.

(Neskatxak)

—Emongotzudas
ixtiaren bisirik.

—Arek neuretzat, baña...
ez itxi bizirik (70).

Erromantzeak 17 ahapaldi ditu, baina garrantzitsuenak —tramaren aldetik— goian jasotakoak. Hizkeraz, ikusten denez, bizkaieraz atunduak daude, herriaren fonetismoez eta guzti. Erromantze honek bertsio aunitz du, baina gu bati soilik atxikiko gatzazkio, azterketa honetarako aski delako.

(69) *Hona edergailuzko pasarte horiek: “Saspi saldi deukadas/ixeras jantzita; sortzigarrentxo, barriz/perlas estali-ta.”, “Orrez gañera dekot-urre-kalizia;/urre-kalizia ta/sobrepelizia” (M. Lekuona. *Obras completas*, 478 or.)*

(70) M. Lekuona. *op. c.* 476-478 or. 3, 5, 6, 7, 9 eta 14-gn. ahapaldiak.

Erromantze hau irakurrita gero, berehala etorri zitzaizkidan hurbileko aztarnak gaztelaniar erromantzetegia irakurriarik. Hurbilena, noski, “La mala suegra” deitzen dena, gurean gisa, amagiarrebak (suegra) bere erraina hiltzen baitu. Erromantze horretaz M. Díaz Roig-ek dio: “El tema de la suegra perversa que causa la muerte de su nuera (erraina) es *muy común* en el folklore *universal*. El romance que ahora presentamos es uno de los más logrados entre la multitud de relatos y poemas con este tema” (71).

Beraz, gaztelaniar erromantzean pasarte adierazgarriak:

—Tu Anarbola (erraina), hijo mío / por esos caminos va,
dando gritos y alaridos / como hija de un rapaz,
de que la cierras el vino / de que la cierras el pan,
que la pones cinta en rueca / y que la hacías hilar.
Si tú no lo *matas*, hijo, / donde pronto lo hallarás (?).

Eta gero euskal textuan ere azaltzen den aitorketa edo konfesioaren eszena:

—No me dejes en el monte / que lobos me comerán,
déjame en un vallarcico / que pastores me verán;
ahora tráeme un confesor, /que me quiero confesar (72)
—¿Cómo quieres que le traiga / si está lejos el lugar?

Eta euskal textuan, berriz, aitortzailearen edo konfesorearen eta bere urruntasunaren (lejanía) aipu garbia:

—Abadea ekarrizu
konfesadu naiten
animaren okerrak
arteztu daidazen.

—Abadea *urrin* dago,
eliza urrinago;
oin orretan asteko
asti gitxi dago (73).

Beti bezala, herri ahoan eta irudimenean, nahiz-eta iturburuko textua aski aldatua egon (tematikan ere), ala ere, bi textuen hurbiltasuna zenbait pasarte garantzitsutan nabaria da. Hona bi textuen artean eraiki daitezkeen parekaketak:

Euskal textuan

- a) *Errainaren arbuioa*:
“ez dot gure prantsesik
ain gutxi erraiñik?”

(71) M. Díaz Roig. *El romancero viejo*, op. c. “La mala suegra”, 282 or.

(72) M. Díaz Roig. *El romancero viejo*, op. c. 282-283 or.

(73) M. Lekuona. “*Frantzie korteko*”, op. c. 476-477 or.

- b) *Erraina hiltzera inbitazioa:*
“urten bidera eta
il ein bear dozu”
- c) *Semeak ez du hil nahi*
“ez da posible, ama,
nik ori eitea”.
- d) *Apeza eskatu konfesatzeko*
“abadea ekarrizu
konfesadu naiten”
- e) *Apezaren urruntasuna*

Gaztelaniar textuan

- a) *Rechazo de la nuera*
“Tu Anarbola...
como hija de un rapaz”
- b) *Invitación a matar a la nuera*
“si tú no le matas, hijo
donde pronto lo hallarás (?)”
- c) *Resistencias del hijo a matar*
“¿cómo quiere que le mate
no sabiendo si es verdad?”
- d) *Llamada al confesor*
“ahora tráeme un confesor,
que me quiero confesar”
- e) *Lejanía del sacerdote-confesor*

Nahiz-eta erramatea edo bukaera bietan berdina ez izan, elkarren arteko saredura tematikoak dudaezinak dira (74).

Ez ahaz European ere ezaguna zela “Amagiarreba gaiztoaren” tradizioa, eta, bereziki, hegoaldean. “El conde Niño” delakoan ere amak alabari galaiaren herioa eskatzen dio (“Si eso supiera, hija mía, yo le mandaré matar”—, (“Si tal cosa yo supiera luego lo mando matar”). Hurbilago, “Marbella” izeneko “La mala suegraren” pasartetan elemendu gehiago kausi daiteke. Hona adibide zenbait:

Si no me lo matas, hijo,
oh, qué mal hijo serás;
ni conmigo has de vivir
ni mis rentas has gozar!

(74) R. Menéndez Pidal-ek badakarkigu laburki “Amagiarreba gaiztoaren—La mala suegra”—ren beste lekuko bat: “Estaba la Miraibella/sentada en su portal/con dolores de parir/que se quería matar”. Eta ondoren hau dio: “La suegra le envía a casa de su madre; luego la calumnia ante el marido, que la mata. Es de los más sabidos en la tradición peninsular” (*Los romances de América*, op. c. 155 or.)

No me mates en el monte,
 que águilas me comerán;
 matarásme en el camino,
 que la gente me verá;
 llamarásme un confesor,
 que me quiero confesar (75).

Eta katalaneraz nahasturiko beste pasarte batean:

—Dona la teta el hijo,
 que te tengo de matarte.
 —¿Qué t'hi fet yo, don Alonso,
 qu'a mí m'hajis de matarme?
 Hijo mío *del meu cor*,
 ¿n'obrarías un *miracle*? (76).

Goian emaniko textuetatik, bada, atera daiteke gure erromantzeak bere iturriak “La mala suegra” delakoaren tradizioan jasotzen dituela, elemendu zenbait propio duelarik.

“SETA HARIA”

‘Seta haria’ (77) deituriko erromantzean Erdi Aroan amodiozko textuetan hain sarritan emaniko eszena datorkigu, alegia, bi maitaminduek komentuko leihoaren burdintsarea dutela elkarren oztopo fisiko. Neska komentuan (78), bortxaz, sarturik dago, eta bere maitalea, berriz, leihopean. Hegazti edo txori baten bitartez mutilak neska-monjari bere amodioaren berri damaio. Azkenean, seta-hari baten bitartez jaitsita, neskatxak komentutik alde egiten du bi maitaleak elkartzen direlarik.

Ertaroko eszenario duen “Romeo eta Julieta”-ren erromantzea aski antzekoa da; mutilak neskatxa gaeuz ikusten du. Beste erdal textuetan ere

(75) *Romancero español*. 1364-65 or.

(76) “*Don-Arbona*”, op. c. 1370 or.

(77) *Erromantze hau Aita Donostiak Atarratze-ko Etxekopare andereari jaso zion 1927-ko irailaren 19.an.*

(78) *Komentuan alaba bortxaz, ez ezkontzearren (ala halako mutilarekin ez uztartzearren), aitagatik sortutakoaren tematika ere “Maitia nun zira” eta “kailla kantuz” kantetan.*

Bainan oraindik bestepasarte batzuk: “Komentuko paretak, oi paretak finak!/ofiziale onek dirade eginak/dobleka badituzte leihoetan burdinak” (Zazpi eihera badi-tut, MEOE, 64 or.), “Engainuz ninduten plazara ekarri/eta lagun batekin komentuan ezarri” (*Ibidem*).

“Komentu batetara orai baniazu” (*Muthil gatzia*, Riezu 337), “Komentu batera serora noazu” (*Anderegaya*, Azkue II, 62 apénd). Eta leihoaren tematika: “Zure alaba Maria/leioan yosten yarrai (*Nere seme ttipiena*, Azkue II, 1005), “Eta zu zira Katalin leihoña idokazu barnera sar nadin (*Batean xutik*, Azkue I, 164), “Maizago igoko nuke leioko krisketa” (*Azkue I*, 340) “Gure maite nun zira? yalki zaite leihoara” (*Herri huntan*, Azkue II, 84).

mutila komentuko (eta bestetan gazteluko) leihora *soka* batez hurbiltzen da, neskaren gelara sartzeko, ala neska gelatik ateratzeko.

Hona ipar textu xarmantaren pasarte adierazgarrienak:

Nik phena banikezü ikus bazintzat han
reia hetan barnen nigarrez hurtzetan (3-gn. ahapaldia).

Libertatia zer den oi! ni bananki.
Aita krudel baten esklabo nuzu ni.
Kanbera batian bethi zerraturik (4-gn. ahapaldia)

Nik badit zeta hari jina Xinatik;
mehe da, bai, bena fina da biziki.
Txoriñoaz nahi daizut hura pasatu zuri.
Estek'ezazu leio burdinari (7-gn. ahapaldia).

Nik badizut txori eskolatu.
Ene obeditzera hurak bertan prest tuzu.
Haietaz nahi deizüt letera pasatu (9-gn. ahapaldia).

Zolala heltu eta Yaun horri besarkaz.
Plazerezko nigarrak heltuz lureza.
“Koxera, emazu zamariet presa...” (11 ahapaldia).

Alaba aldiz Egiptan ezkonturik baita.
Diharia franko baizian eskuetan (14-gn. ahapaldia) (79).

Erromantzeak 15 ahapaldi dauzka, eta oraindik beste zehaztapen xar-
mantak eskaintzen dira (adibidez, txoriak nola askatzen duen bere mokoaz
zeta leihoko burdinetik, etab.).

Gaztelaniar erromantzeroan ez dugu oso hurbileko texturik topatu, bai-
nan “Romance del enamorado y la muerte” delakoan dudaezinezko parale-
lismoak topatzen ditugu, nahiz-eta muina ez izan guztiz berdina. Hona
pasarte batzuk:

—Abreme la puerta, blanca,
ábreme la puerta, niña!

—Si no me abres esta noche,
ya no me abrirás querida;
la Muerte me está buscando,
junto a ti vida sería.

—Vete bajo la *ventana*
donde labraba y cosía,
te echaré el *cordón de seda*
para que subas arriba,
y si el cordón no alcanzase,
mis trenzas añadiría.

(79) “Seta haria”, in “Gure Herria” 7 (1927), post. 576 or.

La fina seda se rompe;
la Muerte que allí venía:

—Vamos, el enamorado
que la hora ya es cumplida (80).

Erromantze honen hedadura penintsulan Asturias, Leon, Zamora, Katalunia, etabarretan. Muina heriotzaren inguruan dabil, baina tramaren sareak aski hurbil daude zehatzapen batzutan euskal textutik. Gurea, bada, hedadura zabalago bateko tokian sartu behar da, arbitrarismoetan erortzeko beldurrik gabe. Seguraski, egonen da, ala ere, beste erdal texturik gureari gertuagoa zaionik. Hona paralelismoak bi textuen artean:

Euskal textua

- a) “Aita krudel baten esklabo nuzu ni.
Kanbera batian bethi zerraturik”.
- b) “nik phena banikezü ikus bazintzat han
reia hetan barnen nigarrez hurtzetan”.
- c) “txoriñoaz nahi daizut hura pasatu zuri.
Esteká ezazu leio burdiñari”
- d) “Nik badit zeta hari jina Xinatik;
Mehe da, bai, bena fina da biziki”.

Gaztelaniar textua

- a) “Las puertas están cerradas,
ventanas y celosías”
- b) “si no me abres esta noche
ya no me abrirás, querida”.
- c) “vete bajo la ventana
donde labraba y cosía”
- d) “te echaré cordón de seda
para que subas arriba”.

Paralelismo hauetan bi textuetan *zeta* / seda haria albokide, eta baita *leiho* ondoko cszena. Alabainan, gure textuan haria desberdina da, eta, itxuraz, bi txutuak “komentuko eta gazteluko” erromantze batzuen traman lotzen dira, tradizioko lokarri global (eta ez-zehatz) batean.

“OIES ERRONDAN DABIL”

Kanta hau Azkuek Lekeitio-n jaso zuen Krisostoma Bengoetxea anderearen ohotik; Mundaka-n ere bildu zuen beste aldagai laburrago bat (81). Kanta, ala arromantze, honek goikoaren airea dauka, nahiz-eta ez kokatu komentu baten eszenarioan. Maitamindua, Oies mutilak, gauaren ilunpean ikusi nahi du. Mutilak neskari erronda ezkutuan egin nahi dio. Kurioski (goiko kasuaren alderantziz) oraingoan neskak *soka* (han “setaharia”) gelatik botatzen dio mutilari (“andixek erasten dau / Karmenek sokea”). *Soka* hori, noski, Europako hainbat eta hainbat amodiozko erromantzetan bezala, bi maitaminduak elkar biltzeko bidea da. *Soka*, ala *lo-karria*, (cordel) izan da (“te echaré cordón de seda / para que subas arriba”) (82) goian ekarritako gaztelaniar erromantzean) hainbat gaztelaniar, italiar, alemaniar kantetan komentu eta gaztelutako hormak maitaleen presentziaz lotu dituen. Oies-en maitamindua den Karmen-ek “itxasoko aldetik dauko bentanea”, horrela itsasoaren paisajismo sinbolikoa erromantzean tartekaturik. Eszenario hori, kasik, topikoa da Ertaroko erromantzetan, amodioaren lekumen gisa. Baliteke, bada, gurea (goiko kasuan bezala) erromantze konkretu batetik hartua ez egotea; baina amodiozko pasartearen eszenarioa kanpoko literaturen *ohizko koadroan* sartzen da. Gureak, gainera, lekumen euskalduna duela dirudi..., baina lekumen hori literatura zabalago baten koordenadetan kokatua dago. Hona euskal textua:

Oies errondan dabil,
berak baki nundik,
Karmen gerri politen
ate-ondotxutik. Oies:
sarritxutan errondan
ibili zaitkez.

Itxasoko aldetik
dauko bentanea,
andixek erasten dau
Karmenek sokea. Oies:
dirua emon nai ta
inok artu nai ez (83).

(81) R. M. Azkue. *Cancionero popular vasco*, II, 1018-19. *Mundaka-ko aldagaiak dio: “Oies, sarri sarri errondan ibili zaitkez./Oiesek emoniko bosteko gorria,/andreak kaixan dauka gona beilegia”. Eta Lekeitio-n jasotako bariantek, berriz, Oies gartzelari kokatzen du (eta neska kanpoan) (“Oyes kartzelan dago damea kanpoan,/Oyesek nai leukela beleuko alboan”)* (*Ibidem*, II 1020).

Euskal lirika zaharrear komentuko gaiak (amodioaren alorrean) gogoratzekoak oraindik “Txori erresinula” (MEOE, 84 or.), “Xamargarri bat” (MEOE, 74 or.), “Maitia nun zira” (Salaberry 8 or.), “Kailla kantuz” (MEOE, 86 or.)

(82) R. Menéndez Pidal, *op. c.* 63 or.

(83) R. M. Azkue. *l. c.*

Beraz, eszenan *sokea*, *bentanea* (leihoa), mutilaren erronda... *Lehioaren* tematika, aita, beste kanta aunitzetan; “aita beha zegola salako leihotik” (84), “ez dizut idokitzen gabaz nik leihorik” (85), “izar xamargarri hura leioan omen dagozu (86), “amodioak bainerabilkan haren ateleioetan” (87).

Kanpoko literaturara begiratzen badugu “ventanas” eta “rejas” (gure “Seta-haria” erromantzean garbiri “*reja* hetan barnen nigarrez hurtzetan” (88)) ez dira urriak, “muros” hitza ahaztu gabe. Gaztelaniar erromantzeetan Oran eta Tánger aldean bildutako “Diego León” deiturikoak bi maitamin-duak *leiho* eta *burdintsare* (*reja*) batetik begiratzen ezartzen ditu:

En la ciudad de Toledo, en la ciudad de Granada,
allí se ha criado un mancebo, Diego León se llamaba.
El era alto de cuerpo, morenito de su cara,
delgadito de cintura, mozo criado entre damas.
De un tal se enamoró, de una muy rica y galana;
se miran por una reja, también por una *ventana*, el día que no se
ven no les aprovecha nada... (89).

Beraz, nahiz gurean, seguraski, Euskal Herriko lekumen arrunta eduki, ala ere, gutxienez erromantzeetan eman ohi zen amodiozko eszenografia isladatzen da. Proventzako lirikan ere *leihoa*, *komentua*, etabarren aipamenak ez dira falta. Bainan lehenago Gaztelako erromantzeroaren zehaztapan hau: “En las almenas de Toro, / allí estaba una doncella, / vestida de paños negros, / reluciente como estrella” (90). Euskal lirikan “almena” hitza ere ez da faltako “Lastur-ko Miliaren eresian” (“Aurkitu dau Lastur-en torre barria, / edegi dio almeneari erdia”) (91). Eresi hau, noski, “Oies errondan dabil” baino askosaz zaharragoa eta ertaroagokoa da, bainan *leihoa*, *gaztelua*, *murrua*, etab. ez dira ahaztekoak. Orain ikus dezagun Proventzako pasarte bat:

Qual pro y auretz, dompna conja,
si vostr’amors mi deslonja?
Par què’us vulhatz metre *monja* (92).

(84) MEOE (*Milla euskal olerki eder*), op. c. “Goizean goiz jaikirik” 66 or.

(85) MEOE, op. c. “Maitale gibelatua”, 62 or.

(86) MEOE, op. c. “Kailla Kantuz”, 87 or.

(87) MEOE, op. c. “Kailla Kantuz”, 86 or. *Ona beste bat bera osotasunean: “Oi, ene bihotzeko lili haitatia, / ene botza entzunik leiuana zaudia? / aspaldin enereizün ikusi begia; / barnerat sar nadin indazüt eskia” (Xarmargarri bat, MEOE, 74 or.)*

(88) “Seta-baria”, gure Herria, 7 (1927), post. 576 post.

(89) M. Díaz Roig. *El romancero viejo*, op. c. “En las almenas de... Toro”, 150 or. *Ikus ere Menéndez Pidal. Romanc. Hispánico, I, 237-238.*

(90) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América*, op. c. “Diego León”, 152 or.

(91) S. Onaindia. MEOE, “Milia Lastur-en eresia”, 38 or.

(92) M. de Riquer. *La lírica de los trovadores*. Barcelona, 1948, p. 25. *Textua* Guilhem de Petieu *trobalaria*rena da.

Goian esadako guztiagatik “Oies errondan dabil” erromantzea eszenograliaz, nolabait, kanpoko eragina pairatu duen textuen artean ezarri behar da.

MAIRUIE SALDUTAKO NESKATXA

Erromantze honek euskal textuan ez dauka beste alboko hizkuntzetan duen desarrollo larria; ala ere, textu hau haien hari tematikoa dabil, eta parekaketak aski errazak dira elkarren eragina atzemateko. J. M. Leizaolak dio: “Tiene el romance incompleto que se acaba de leer un sabor distinto de los anteriores, y que se me ocurre señal de influencia de algún romance castellano por dos circunstancias: 1, la mención de la morería tan frecuente en los romances castellanos; 2, la falta de todo elemento de localización en el País Vasco de la acción objeto de la obrilla” (93).

G. Humboldt-ek Itxasou-n XIX mende haseran harturiko textuan pasarteok:

Saldu nintzan dirutan
asko sari handitan,
ehun pizu dirutan ta
berrehun dupa ezitan.
Aita nuen saltzaile,
ama diru hartzaile,
anayarik txipiena
mairutarik kentzaile (94).

Azkue-k, berriz, Etxalar-en (Naf.) bildutakoan aldaketatxo hauek:

—Aita nuen saltzaile
ama diruen hartzaile;
nere anaia Bernardo
moru-errira entregatzaile.
Saldu neduen dirutan
dirutan ere aunitzetan;
neunek pisala urretan
eztitako bi kupeietan.

—Neure alaba Miarrez
jzer dun orrela nigarrez?
ire yauntziak eginik tziauden
urregorritz eta zillarrez (95).

(93) Jesús M. Leizaola. *Romances vascos y literatura prehistórica*. Ed. Ekin 1969, 37-38 or.

(94) Jesús M. Leizaola, *op. c.* 38 or.

(95) R. M. Azkue. *op. c.* 471-72 or. *Eta Salaberrik bildutako aldagaiaren pasarte hau: “Aita, zu izan zira ene saltzaile, anaie gohiena dihariaren harzale,/anaie artekua zamariz igaraile,/anaie zipiena ene laguntzale” (Ibidem).*

Hemen, beti bezala, pasarteari gaztelaniar “ordain” egokiak bilatzean dago kakra. Itxuraz, behintzat, gure textuek gaztelaniar erremantzeroaren kutsu-aztarnak daukate. Beraz, Bernardo de Carpio-ren zikloan *mairuak*, *katibuak*, *salmentak*, etabar nabariak dira. Guk han-hemendik hartuta textu bereziak eskainiko ditugu (96). J. M. Leizaolak Gonzalo de Berceo-ren (eta bere *euskaltasun* pertsonala guretzat ez dago batere probatuta, bera idazkietako *kirola*, *asmatu* (asmar) eta gisako hitz aunitz ez baita euskalduna, *erromaniko* hutsa baino, hots, *kirola* lat. *choreolam*, *asmar* lat. *a(dae)se(ti)mare* (97) -aurretonikaren erorketaz) textu aproposa dakarkigu. Horretaz aparte, gaztelaniar erromantzeroan aipamen hurbileko aunitz, nahiz gurea —beste askotan bezala— detailetan urrundu, ala laburragoa izan.

Hona gaztelaniar pasarte zenbait:

Entre Sevilla y Segola vide venir un gran guerrero,
que siete cativos trae, uno al otro traban remo;
los seis eran mis hermanos, mi padre iba delantero (98).

...Cautivaron a Francisco, hijo del rey don Julián,
no le cautivaron (tomar cautivo) moros, que él se quisó cautivar;
metieronle en cárceles hondas, hondas y de oscuridad (99).

Tomedis, señora, a esta cautivita,
que en todo tu reino no la hay tan bonita.

—Si en todo mi reino no la hay tan bonita,
el rey es chiquito, la namoraria (99).

(96) Bestalde, “Erroldanen trajeria” *pastoralean ere neskaxa mairuen salmentan eszena gisa*: “Nahi ba derizkutzuz/eskoietara libratu/pha hun batez/nahi zutugu phakatu... Emanen deriat, Ganelon/hirur karga urhe/bi mila mando gazte/berrehun mairusa (moras)/eta present aboro ere”. J. M. Leizaolak argitan jarzen digu Gonzalo de Berceoren textu zaharrak (Vida de san Millán delakoak), gero gure zuberotar *pastorale berantean kausituriko eszenak*, baduela aurretiko bat: “El rey don Ramiro un noble caballero— que nol vendrien de esfuerzo Roldán ni Olivero,/quando sopo esta nuevas, el mesage certero,/sovo mal expandado en el día primero” (J. M. Leizaola, op. c. 43 or.)

(97) *Ikus gure Latina eta erromanikoaren eragina euskaran*, op. c. 147, 205, 322, 328 or. *Iritzi berdinekoak asmatuaren etimologiaz* Schuchardt *Bask. Und Rom.* 53, Unamuno *ZRPh* 17, García Diego *Dice.* 123, Castro Guisasola *Enigma* 69. *Ala ere*, ez da ahaztekoa *besteen artean Berceo-ren idazkietan Don Bildur eta zatico dagoela*, eta *besterik ere*, *nahiz-eta Berceo pertsonalki euskalduna zela esateko guretzat argudio garbirik ez egon*; *ala ere*, Errioxa Garaia, bere hurbilean, oraindik euskalduna zen hizkuntzaz eremu batean. Zatico hitza garbiri euskalduna (pedazo esanahiaz). Bere “*motilar*”, *ordea*, *erromanikoa* lat. *mutilum* -etik. Azcona, berriz (“*dejáronse matara golpes de azconas*”) (Santa Oria, estrofa 81) *erromanikoa da*, *nahiz jatorri iluntsua eduki*. Hona “*zatico*” hitzaren pasartea Berceo-rengan: “*Después el santo clérigo toma la hostia santa: fâcela tres zaticos en lo que la quebranta*” (*Sacrificio*, estrofa 275).

(98) R. Menéndez Pidal. *Los romances de América*, ‘*Cabalgata de Peranzules*’, 149, or.

(99) R. Menéndez Pidal. op. c. “*Don Bueso y su hermana*”, 147 or.

La reina Xarifa mora, la que mora en la Almería,
dice que tiene deseos de una cristiana cautiva.
Los moros como la oyeran de repente se partían:
de ellos parten para Francia, de ellos para la Almería (100).

M. Díaz Roig-ek bere bilduman oraindik beste erromantze xumeago bat, elkarrizketa etengabe batean ahokatua. “La hermana cautiva” du izena: (101).

Ya vienen los cautivos / con todas las cautivas.
Dentro de ellas, / hay una blanca niña.
—¡Para qué la traen / esta blanca niña
que el rey Dumbelo se enamoraría?

Erromantzeak paralelismoetan jarraitzen du, eta bere kutsua aski zaharra da (102).

Bainan, agian, textu denetan sugerigarriena —euskal textuaren muintetik begiratuta— “Moriana cautiva” delakoa daiteke:

Buscando triste Morina,
la hija del emparante!,
cautiváranla los moros
la mañana de San Juan,
cogiendo rosas y flores
en las huertas de su padre.

Ez ahaz euskal textuan, aitaren pertsonaiak aparte (saltzaile bezala), aberastasun-sinboloak daudela (*urreak, zilarrak, kupelak*). Sinbolo horien aipuak ere gaztelaniazkoetan:

Y entre ellos llevaban
a la infanta niña;
cubierta la llevan
de oro y perlería (103).

Oro eta perlería horien ordainak gure textuan “eztitako bi kupeletan”, “ehun pizu dirutan ta / berrehun dupa eztitan”, “ire yauntziak eginik tzirauden / urregorria eta zillarrez”. Eta berriro *aita* saltzailearen aipua gaztelaniaz: “Y si os pregunta mi *padre* / de lo bien que me quería / que él se ha

(100) *Ibidem*. “*Hermanas reina y cautiva*”, 147 or. M. Menéndez Pelayo-k ere Antigua lírica castellana delakoan katibu denaren erromantze berezia: “*Por Dios me digas, Leonardo, —por Dios y Santa María, o me llevas por mujer o me llevas por amiga. — Por esposa no por cierto, — que esposa ya otra tenía; la vida tengo de hacerte que a mí tu padre me hacía...*” *Obras completas. op. c. t. VII, 266 or.*

(101) M. Díaz Roig. *El romancero viejo, op. c. 286 or.*

(102) “*En lo que se refiere a la tradición sefardí, es éste un texto muy característico debido a la presencia del paralelismo; este procedimiento abunda en la lírica judía y ha influido sin duda en su Romancero*” (*Ibidem*).

(103) M. Díaz Roig. *El romancero viejo, op. c. 233 or.*

tenido la culpa / que yo marche pa Turquíá” (104). Horren ondoan garbi dago gure “Aita nuen saltzaile”, “Aita, zu izan zira ene saltzale”.

Bainan euskal textuan oraindik *ama* eta *anaiaren* aipamenak (“*ama* diruen hartzaile; nere *anaia* Bernardo / moru-errira entregatzaile”). Gaztelanar textu batean *ama* eta *anaiaren* aipu nabariak. “Romance de don Bueso” delakoa mairuetaz eta katibuaz ari da, eta bertan (nahiz-eta textuinguru desberdinean) *aita* alde batetik, *ama* bestetik (“*mi madre* la reina bordaba y cosía”), eta, azkenik, *anaia* (“*mi hermano* don Bueso / los toros corría”) (105). Azkeneko kasuan hurbiltasunak ez dira hain hertsia, alabainan, bi textuen influuari dagokionez, orokorki, esan daiteke euskal textua kanpotiko katibuen tradizio zabal baten oretan murgiltzen dela, eta bere laburtasunean (textua ebakita iritsi zaigu seguraski) tradizio horren zordun dela.

“URA IXURIRIK”

Erromantze eder hau mitologiako ur sakonetan sartzen da, eta, itxuraz oso aintzinakoa ez-ezik, aurrekoek bezala influxuak ditu beste herrietako tradizioekin, nahiz-eta oraingoan eragin edo influxu horien aztarnak urrunagotan arakatu. Bahteke penintsulako tradizioan (ala Frantziakoan) antzeko zerbait egotea, bainan oraingoz ez dugu ezagutzen textu hurbilik. Kanta honen eragin-argibidetarako Tx. Peillen-ek eginiko lan bati jarraituko diogu, funtsean, alegia, “Oraina eta gizoreina literaturgintzan eta edergintzan” lanari (106).

Lehenik esan behar dugu, oreina (ciervo) lirika zaharrean ezaguna dela, eta ez urruneko lirikan, baita Galizia-koan ere. Jatorriz ekialdeko tradizioan agertzen dela bide du tradizio horrek; Galizian, konkretuki, Meogo ertaroko poeta lirikoak darabil. Eta Gaztelan ere bildu da oreinaren erromantze bat, bainan ez euskal textuak duen oihartzun mitologikoaz. Adibidez textu hau:

Cervatica, que no me la vuelvas
que yo me la volveré.

Cervatica tan garrida,
no enturbies el agua fría,
que he de lavar la camisa
de aquel a quien di mi fe.

Cervatica, que ni me la vuelvas
que no me la volveré (107).

(104) M. Menéndez y Pelayo. *Obras completas*. “*El cautivo*”, l. c. 266 or.

(105) R. Menéndez Pidal. *Flor nueva de romances viejos*, op. c. 236 or.

(106) Cfr. Iker-2. *Euskaltzaindia*, 1983, 529-540 or.

(107) Ikus D. Alonso y J. M. Blecua. *Antología de la poesía española. Poesía de tipo tradicional*. Madrid, 1956, 77 zenb. Eta jarraitzen du: “*Cervatica tan galana, no enturbies el agua clara, que he de lavar la delgada/para quien yo me lavé./Cervatica, que no me la vuelvas/que no me la volveré*” (*Ibidem*).

Ikusten denez, oreinaren sinboloa hemen, bainan pasarteak ez du euskal textuan azalduko den akziorik, eta, nolabait, ekialdeko tradizioekin ahokatzen den egitura datualarik. Ala ere, urrunera soilik joan gabe, jakin beharrekoa da (eta Peillen-ek ez du esaten deus honetaz) oreina Espainia-ko paganismoan sinbolismo *faliko* baten erdua izan zela; nolabait, azalpide sexualekin harremanetan zegoen oreina, eta Paziano —Bartzelona-ko apezpi-kuarentzat— orein-larruaz jantzita ibiltzea “cervulum facere” zen, hots, hala-ko praktika “sexualetara” ematea itxura aldatzean. Euskal textuan Mayi orein-larruz jaxten da egunez (“gauaz Mayi nuzu / egunaz oreina”) (108).

Beraz, gure ustetan, Penintsulan kokatutako tradizioak ez dira ahazte-koak gure textua ere aztertzerakoan. Kuriroski, oreina lagun baten irudipean *jarcha* batean: “El ciervo ha venido a golpear su puerta, de su habitación, llevando la voz, dice a su madre: Que faray mama meu lhahib estad yana” (Sterne n. 12).

Guri interesgarria zaigu adieraztea, oreina maitasunaren adibide zintzoa baldin bazen aro batzutan, gerora serrar engainatuaren sinbolo bihurtu zela (“pones los cuernos al marido” delakoa hortik, dator, nolabait).

Bainan, aurrera jo aurretik, euskal textua eman dezagun pasarte nagu-sienetan.

Gauaz Mayi nuzu / egunaz oreina,
etxeko zakurrek, xerkatzen nutena.

—“Jakes, nun tuk horak? ez tiat senditzen”

—“Oihanpean kurri / oreina xerkatzen”.

—“Jakes, deit zakurrak, salbazak arena!”.

—“Ama, nola sinets / Mayi deitekela?”

Oreina hil dute / kolpez ausikika.

Jakesek kanitaz / eman du pusketetan:

—“Aseko ahal da / Mayi gurekila”.

—“Afal, afal, Jakes, / ni nuk hor lehena,
ene haragiaz / betherik dupina”

Ama sal-solan / nigarra begian.

Punala sartu du / bere bihotzean (109).

Erromantze honetan sinbolismoa eta tragedia nagusiki uztartzen dira. Haria, beraz, sugerentzia handikoa da. Beraz, anaia edo Jakes ez da ohar-tzen, orein-larruz jantzirik egunez dabilena bere arreba Mayi dela. Jakes-ek ehizean zakurrak (horak) botatzen dizkio oreinari hil dezaten. Jakes-ek orei-

(108) Cfr. Eugenio Asensio. *Poética y realidad en el cancionero peninsular de la Edad Media*. Ed. Gredos, 1957, 5657 or. Bertan zitatua gai honetaz: St. McKenna. *Paganism and pagan survivals in Spain to the Fall of visigotik Kingdom*. Washington, 1938, 47 or.

(109) P. Lafitte. “Atlantika-Pirene-etako sinheste zaharrak”, in “Gure Herria”, 1965, 22. 23 or.

na (hots, bere arreba Mayi) labanaz ebaki eta jan egiten du, eta Mayi-k anaiari diotsa “ni nuk hor lehena, ene haragiaz / betherik dupina”. Hari tragikoa, benetan, erremate dolugarri batez hornitua, ama ohartzen baita Jakes-ek arreba hil duela; orduan, amak puinala sartzen du bere bihotzean (“punala sartu du / bere bihotzean”). Argumendu hau ikusita, influxuaren aldetik, arakaketak hasten dira.

Lehenik, esatekoa da gizona (*oreinaren kasuan ez bakarrik*) *katu, otso, azeri* eta abarretan itxuraldatua izan ohi dela, eta Lafitteren aburutan ere zenbait izen berezi animalez osatua egotea, ala nola, *Lope (lupu-otso), Renard* (azeri) gertakizun horren adierazpen izan daiteke. Tx. Peillen-ek amerindiar tradizioak aipatzen ditu Miguel Angel Asturias nobelagilearen aztarnak jarraituz. Guk (nahiz-eta tradizio horiek kontutan hartzekoak izan) iturriak *hurbilago*, ala gutxienez, hemengo kontinentetako traidizioetan bilatzea hobesten dugu, Gautemalako (Maya-Quiché) sinboloekin hain parekaketa hertsia egin gabe.

Agamenon eta Artemis-en arteko gorabeherak gogoragarriak dira. Honetan adigarrienetakoa Tx. Peillen-ek —Greziako mitologia jarraiturik— esaten diguna: “Sineste hori ez baldin bada Euskal Herrian kontserbatu, gure euskal kantak badu Artemis-kin gertatuaren egitea... Behin oihan baten erditan, iturri baten urtena ninfa-iturri neskekin bainatzen ari. Jainkosa ikusi zuten eta beha egon: berehala *oreiñ bilakatu zen eta bere zakurrek jan zuten.*” (110). Esames mitologiko hori zeharo ahokutzen da euskal textuan isladatzen den muinarekin, alegia, neskatxa *orein itxuraz* aldatzen delako, eta *zakurrek jan duteluko*. Hain urruneko tradizioak ez du esan nahi (bestetik gabe) gurean eragin zuzena eduki duenik, bainan bai Europan zehar hedaturiko tradizio “handiago” batekin harremanetan egon daitekeela.

Bestalde, Euskal Herritik hurbilago dagoen Ariege departamentuan Trois-Freres haitzuloan giza gorputza eta orein adarrak dituen sorgin-irudi bat bilatzea sintomagarrria da. Jainko-adardunaren tradizioan dabil hori... Bainan, Tx. Peillen-ek gogoratzen digunez, Uztaritz-en (Laburdi) aurkitutako hexur primitibo batzutan “lau giza buru ikusten dira eta baten gaiñetik *orein-adarrak*” (111).

Bestalde, G. Doumézil-ek *Romans de Scythie et dalentoirs* lanean jasotako kontakizun bat ematen digu Peillen-ek. Kontakizun horretan orein bilakutzen dena ez da gizona, *neskatxa* (euskal textuan bezala) baino (112).

Euskal textuak, itxuraz, euro-asiar tradizio mitologiko bereziak biltzen ditu —halanola—, bere girora erakarrit. Ala ere, guk nahiago ditugu tradizio horiek hurbilago ere kokatzea, eta horretarako penintsulan eman ziren, tradizio pagano batzuen uretan murgiltzea ere eliztateke txarra. Beraz, corpus mitologiko nagusi batetik jasoak gure kasuan berezitasunez jantzi dira, eta Ekialde Urrunean (Txina, India) arakatu baino (hurbiltasunari dagokionez) area gertuagoetan sakondu behar litzateke. Guk, ondoren, “Lanzarote y el

(110) Tx. Peillen. *art. c. 540 or.*

(111) Tx. Peillen. *art. c. 535 or.*

(112) *Ikus ere* Tx. Peillen. “*Oreiña*”, *Jakin* (1965) 18 zenb.

ciervo del pie blanco” erromantzearen tradizioan arakatutik, parekaketa zenbait atzematen dugu. Erromantze honetan Bretaña-ko oihartzunak hantzen: “Commo fuera Lancarote / quando de Bretaña vino: / donzellas curavan dél / y dueñas de su rocino” (113).

Euskal textuan oreina Mayi (neska) da. Honako honetan, berriz, oreinaz itxuraldatzen dena erregearen *semetako* bat da:

Tres hijuelos auia el rey / tres hijuelos que no mas...
El vno se torno cieruo, / el otro se torno can,
el otro se torno Moro, / passo las aguas del mar (114).

Euskal textuan horak (zakurrak) oreina bilatzen dabilta. Berdin XVI mendeko testu honetan:

Ya caualga Lancarote, / ya caualga y va su via,
delante de si lleuaua / los subuesos por la traylla.

Eta aurretik *oreina*:

—Diga me tu, el hermitaño, / tu que hazer santa vida,
esse cieruo del pie blanco / *dónde haze su manida?*

Eta *Cancionero musical del Palacio* delakoan:

—Digas tu, ella mor d’engaño, / pues nos das tan triste vida,
el remedio de tu daño / *¿dónde haze su manida?*

Garbi dago hemen oreina halako amodiozko eta sexualitatezko inguru-giro batean dabilela. Oreina zaurituta doa, eta zauria hilgarria da. Oreinaren koba orain, ordea, “de plazerer despoblada / e tristezas guarnescida” dago.

Erromantzea erdal textuetan, aunitzetan, etenduraz josita dago, hermitazalearen pasarte funtsezkoa delarik, eta baita oreinaren giza-jatorria (115).

(113) Biblioteca nazionaleko eskuizkribua. Ikus: D. Catalán. *Por campos del romancero*, op. c. 82 or.

(114) *Cancionero de Romances*. Envers 1550, f: 242. D. Catalán, op. c. 86 or.

(115) Giza jatorri horren aitortpena; berritua; beranduagoko aldagaiotan: “Y el otro se ha vuelto ciervo/que por los montes corría”, “Uno se le vuelve ciervo/ciervo que al monte se iría”, “Y otro se le volvió ciervo/ciervo de la ciervería”. (D. Catalán, op. c. 94 or.)